

Bergarako astekaria

# Berrigara

## Bake

## prozesua

### 20 bergararren iritzia



... iritzia

**JUAN SIMON**  
Elayko taldea

**ROSA**  
Guraso taldea

**MARISA**  
Euskalduntze taldea

**SEBAS**  
Merkatal taldea

**ENERITZ EGA**

izena eman **dek**<sup>n</sup>

# BAI

EUSKARARI!!




# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara  
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate  
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea  
babesteko gande*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**



**902 202 502**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.**


**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**



# Adi gaztetxoak!

## Bagatoz berriro!



### AUKERA UGARI DITUZUE...

- Tailerrak
- Mahai-jokoak
- Eskulanak
- Irteerak
- Irratia
- Jaialdiak
- Kitarra
- Akanpadak

11 urtetik gorako  
gaztetxoontzako egundoko aukera!  
Urriaren 3tik aurrera zapatu eta domeketan,  
16:00etatik 20:00etara, Kartzela Zaharrean.

Informazioa:  
Kartzela Zaharra  
Tf. 943 76 36 61





# Gauzak aldatzen hasiak dira

Ane Miren Lizarralde / Kazetaria

Egun hauetan, ETaren su-etena dugu hizketagai nagusienetakoa, eta ez da gutxiagorako. Denetarik entzun dugu joan zen asteartetik, ETak su etena iragarri zuenetik eta, seguruenik asko izango da entzun behar duguna datozen egunotan, baina batzuren hitzekin batera, keinuren bat etortzea ez legoke gaizki, ETaren iragarpenak sortu dituen itxaropenak "plis plas" batean ez desagertzeko.

Jose Maria Aznar Donostiako Anoeta kiroldegian izango dugu larunbatean. Ea, bada, zer mezu uzten duen, orain arte denetarik entzun baitugu Alderdi Popularreko buruzagien ahotsetan.

Egoera berri baten aurrean gaudela uste dugunok ezin ditugu ulertu, ez eta onartu ere, azken egun

hauetan Barne ministeriotik, Jaime Mayor Orejaren ahoetatik, entzun ditugunak.

Lizarrako akordioa berak eta inguruan sortarazi zuen giroak itxaropentsu utzi ninduen. Handik hiru egunetara su etenaren iragarpenaren berri izan nuenean poztu egin nintzen, eta orain entzun ditudanak

*"Su-etenaren iragarpenaren berri izan nuenean poztu egin nintzen, eta orain ezin dut pentsatu ere egin PPk duen aukera pasatzen utziko duenik"*

entzunda, ezin dut pentsatu ere egin Alderdi Popularrak duen aukera pasatzen utziko duenik.

Azken finean, inolaz ere nahi ez duguna lehengo egoeretara bueltatzea da.

Gauzak aldatzen hasiak dira eta aurrera egin behar da. Gauzak mugitzen ari direla Herri Batasunak Oiartzunen egin berri duen bileran ikusi genuen. ETaren su-etena zailantzan ez jartzeaz gain, bildutakoez azken denboretako egoera aldatu behar dela aitortu zuten. Horretaz gain, lurralde batasun kontzeptua alde batera utzi eta lurraldetasunaz hitz egin zuten, Stormont-eko akordioari jarraituz. Eta honekin guztiarekin zer? Ba, bakeaz eta bakebideaz tinko aritzea espero dugula. B

■ barruan



**Markos Gabilondo**

Brigadista

*"Zapatistek lurra eta askatasuna, besterik ez dute eskatzen"*

8. orrialdean.



**Maixa Lizarribar**

Trikitilaria

*"Trikitixa lehen iristen ez zen tokietara heldu da, batez ere komunikabideei esker"*

31. orrialdean.



**J. Jose Murgiondo**

Aierdi Gainekoa baserrikoa

*"Ordiziako gazta irabazlearengatik ez nuke horrenbeste ordainduko"*

33. orrialdean.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1936.** Irailaren 25ean Franco-ren aldekoek Bergara hartu zuten. Besteak beste, herriko industria garrantzitsuenak hartu zituzten, tartean "Algodona de San Antonio S.A.". Ondorioz, Francoren tropak jantzeko kaki koloreko oihalak egiteari ekin zioten, tela urdinaren ordez.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1886.** Irailaren 25ean Jesus Guridi musikaria jaio zen Gasteizen.

**1888.** Irailaren 21ean Bilboko portuko lanak hasi ziren.

**1977.** Irailaren 24ean EAJren lehenengo Alderdi Eguna Aralarren.

### MUNDUAN GERTATUA

**1928.** Irailaren 22an penizilina deskubritu zuen Alexander Fleming mediku britainiarrak.

### zozketak

#### BONO LOTO

##### Eguakitza 18

2-9-23-26-34-45 (osag.4/er.4)

##### Astelehena 21

24-31-38-39-41-48 (osag.37/er.8)

##### Martitzena 22

1-7-16-19-22-41 (osag.37/er.0)

##### Eguaztena 23

1-16-20-27-28-45 (osag.13/er.4)

#### PRIMITIVA

##### Zapatua 19

7-19-22-31-33-39 (osag.5/er.2)

##### Domeka 20 Gordo

1-11-30-35-38-45 (osag.25/er.1)

#### ONCE

**Eguakitza 18:** 50.871 (K. seriea: 015)

**Astelehena 21:** 82.324

**Martitzena 22:** 03.194

**Eguaztena 23:** 45.880

#### BESTE BATZUK


**Bedelkar, irailak 12, zozketa**

**(Txerria edo 50.000 PTA):**

20.030 (agertuko ez balitz: 161)

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*



Astebukaeran hodeiak nagusituko zaizkigu zeruan. Euria egingo du eta, tarteka, ekaitza botako du. Tenperatura epelak izango ditugu eta haizeak hegotik joko du arin. Domekan mendebaldetik joko du haizeak.

## Ilargiaren aldiak



Ilberri: irailak 20



Ilgora: irailak 28



Ilbete: urriak 5



Ilbehera: urriak 12

## Eguzkia

*Domeka, irailak 27*



Sortu: 08:09



Gorde: 20:05

## Temperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 17</b>	24	15	-
<b>Eguakitza 18</b>	25	10	-
<b>Zapatua 19</b>	30	10	-
<b>Domeka 20</b>	31	11	-
<b>Astelehena 21</b>	29	10	-
<b>Martitzena 22</b>	21	13	1,1
<b>Eguaztena 23</b>	24	14	46,6

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

### Aizau

Haizatu. Haizez bete ganaduak, lehertzeko zorian jartzen direlarik.  
- *Beixai arbi-atala trabau jako eztarrixan eda aizau ein dda.*  
- *Betenaixuai diar ein biako jako.*

Notizia bat (jakitea komeni ez dena, gehienetan) barreiatu.  
- *Ik ixilik gordetzeko esaixok eta ikusikok; laster aizauko jok erri osuan.*



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Ospetsuen ADNa salgai

Joan zen ekainaz gerotik, Kaliforniako StartGene's enpresak pertsona ospetsuen ADNa salgai ipini du. ADNa mototsetako geneen klonazioaren bidez lortzen da. Marilyn Monroeren ADNa izango da esperientzia honetan aitzindari, bere jaiotzaren 75. urteurrena dela eta. Bere ADNa hogeita mila pezeta inguruan egongo da salgai. Gero Einstein, Presley eta abar etorriko dira.

## Farmaziak

### Eguakitza 25:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

GAUEZ: ZABALA. Arrasate. Tf. 943 77 16 30.

### Zapatua 26:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

GAUEZ: RUIZ. Arrasate. Tf. 943 79 14 09.

### Domeka 27:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

GAUEZ: MORALES. Arrasate. Tf. 943 79 18 65.

### Astelehena 28:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

GAUEZ: AZKAGA. Arrasate. Tf. 943 79 15 15.

### Martitzena 29:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

GAUEZ: ESPAÑOL. Arrasate. Tf. 943 79 14 88.

### Eguaztena 30:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

GAUEZ: CORCUERA. Arrasate. Tf. 943 79 22 26.

### Eguena 1:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

## Ogia

**Domeka 27:** Konde.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

# zorion agurrak



**Silvia Sebastian**  
Irailaren 22an  
5 urte. Zorionak!  
Gurasoak, aitajauna  
eta amandrea.



**Rosi Guisado**  
Irailaren 26an  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Senarra.



**Julen Mendizabal**  
Irailaren 24an  
7 urte. Zorionak!  
Amama eta  
famihiakoak.



**Ane Ruiz de Eginu**  
Irailaren 19an  
8 urte. Zorionak!  
Famihiakoak.



**Igor Igartua**  
Irailaren 26an  
5 urte. Zorionak!  
Etkekoak.



**Jone Fernandez**  
Irailaren 28an  
11 urte. Zorionak!  
Etkekoak.



**Manu Iztueta**  
Irailaren 26an  
urtebetetzea. Zorio-  
nak! Erik, Amaia,  
Nerea eta Bat.



**Mikel Kortabarria**  
Uztailaren 24an  
4 urte. Zorionak!  
Famihiakoak, Elisa  
eta Julen.



**Txaro Ugarte**  
Irailaren 30ean  
54 urte. Zorionak!  
Ainhoa.



**Elisabet Dominguez**  
Irailaren 26an  
13 urte. Zorionak!  
Famihiakoak.



**Elisa Kortabarria**  
Irailaren 25ean  
8 urte. Zorionak!  
Famihiakoak, Mikel  
eta Julen.



**Ion Mikel**  
Irailaren 24an  
12 urte. Zorionak!  
Erik, Amaia eta  
amama Juani.



**Mikel Gorrotxategi**  
Irailaren 23an  
5 urte. Zorionak!  
Famihiakoak.



**Andoni Gorrotxategi**  
Irailaren 23an  
5 urte. Zorionak!  
Famihiakoak.



**Izaskun Iztueta**  
Irailaren 26an  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Erik eta Amaia.



**Mikel Arroyo**  
Irailaren 26an  
4 urte. Zorionak!  
Erik, Amaia eta Bat.



**Joseba Galan**  
Irailaren 22an  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Mari Jose.



**Ainhoa Larrañaga**  
Irailaren 22an  
24 urte. Zorionak!  
Etkekoak.



**Hodei Agirre**  
Irailaren 18an  
12 urte. Zorionak!  
Etkekoak.



**Agurtzane Loidi**  
Irailaren 30ean urte-  
betetzea. Zorionak!  
Beñardo, Aritz eta  
Antzuolako lagunak



**Alba Benitez**  
Irailaren 19an  
3 urte. Zorionak!  
Etkekoak.




**Igor Molano**  
Irailaren 25ean  
9 urte. Zorionak!  
Famihiakoak.



**Txomin Alberdi**  
Irailaren 26an  
11 urte. Zorionak!  
Etkekoak.



**Iker Ortuzar**  
Irailaren 24an  
2 urte. Zorionak!  
Ariane, Irati  
eta famihiakoak.



**Eider Velez de Mendizabal**  
Irailaren 25ean  
19 urte. Zorionak!  
AMV.



**Irene Santamaria**  
Irailaren 22an  
15 urte. Zorionak!  
Areto futbol  
taldekoak.



**Josefina Sanchez**  
Irailaren 18an  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Famihiakoak.



**Irune Ureta**  
Irailaren 27an  
11 urte. Zorionak!  
Etkekoak.



**Maribel Medina**  
Irailaren 28an  
30 urte. Zorionak!  
Kolega bat.



**Alaitz Menor**  
Irailaren 25ean  
10 urte. Zorionak!  
Etkekoak.

## ESKER ONA

Eduardo Castellano Martinez

1998ko irailaren 10ean hil zen,  
63 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi  
eskerrik asko famihiakoan partez.*



## ESKER ONA

Lolita  
Erdabide Etxaniz

Bergaran hil zen  
1998ko irailaren 15ean,  
76 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi  
eskerrik asko famihiakoan partez.*



## jaiotakoak

### BERGARA

**Mikel Vicinay Urzelai**

Irailak 9

**Nora Irizar Garcia**

Irailak 9

**Leire Ugarte Juaristi**

Irailak 11

**Garazi Beristain Urzelai**

Irailak 12

**Miren Castelo Azkarate**

Irailak 13

**Alba Bolinaga Cuevas**

Irailak 13

**Beñat Vicente Lazkano**

Irailak 16

**Ainhoa Monterroso Salas**

Irailak 17

**Ainhoa Aranburu Guridi**

Irailak 21

**Aitor Zabaleta Muñoz**

Irailak 22

### ANTZUOLA

**Leire Escribano Viteri**

Irailak 14

## hildakoak

### BERGARA

**Juana Olivas Garrido**

Irailak 18, 76 urte

### ANTZUOLA

**Manuela Enrique Benitez**

Irailak 18, 84 urte

**Pedro Martin Iturbe Jauregi**

Irailak 19, 46 urte

## ANTZERKIA

► **"Brams o la comedia de los horrores"** gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

## MUSIKA

► **The Basque Country** gaur, eguakitza, 23:00etan Pol-Polen.

► **Anasarca, Centinex eta Nomen** bihar, zapatua, 21:30etan Jam-en. 1.000 pezeta.

► **Tonky Blues Band** ostegunean, urriak 1, 22:00etan Soralezeko Gaztelupe tabernan.

## IKASTAROAK

► **Islada bideo tailerrak** antolatuta, edizio ikastaroa (50 ordu) izango da urriaren 23tik azaroaren 27ra. Argibideak Errotalde Jauregian edota 943 77 91 58 zenbakian.

► **San Joxepe** jubilatuen elkartearen eskulanak, pintura, koru eta yoga ikastaroak izango dira urriaren hasi eta ekainera arte. Izen-ematea elkartearen irailaren bukaera baino lehen. Bestalde, Kutxak antolatutako beste hainbat ikastaro izango dira: kuadernaketa (azarotik maiatzera), osasunaren hobekuntza (otsailean) eta

JAIAK

## San Migelak Angiozarren

**Noiz: zapatuan, domekan eta martitzenean, San Migel egunean**

San Migel jaiak izango ditugu Angiozarren asteburuan. Jai Batzordeak iazko antzeko programa osatu du aurten eta, beraz, haur, gazte zein helduek jaietako ekitaldiekin gozatzeko aukera izango dute. Bihar, zapatua, 14:30etan jaiei hasiera emango zaie etxaflero jaurtiketarekin eta kanpai jotzearekin. Era berean, Ikurriña jarriko da Herriko Etxean. Ordubete beranduago plater tiraketa txapelketa jokatu da eta arratsaldean, berriz, briska txapelketa izango da. Gauean, 21:30etan, sardina eta saiheski jana egingo da plazan. Iaz 115 lagun bildu baziren ere, bihar 150 bat lagunek afalduko dutela espero da. Izen-ematea, 1.000 PTA. Afalostean, *Nabiko* taldearekin dantzaldia izango da eta ohiturari jarraituz, goizeko 4retan txokolatada izango da.

Domekan, 11etan Meza Nagusia, ondoren Xamatx dantza taldearen emanaldia eta jarraian Gezalaga trikitilarien saioa izango dira. Arratsaldean, 5etan, Kutxo eta Jai pailazoak, poniak eta zezenak plazan eta 7etan mus txapelketaren beste edizio bat jokatu da eta ordu berean Gezalaga anai-arrebek alaituko dute dantzaldia.

Bukatzeko, martitzenean, San Migel eguna, eguerdiko 12etan Jubilatuen abesbatzak lagundutako Meza Nagusia izango da, ondoren jubilatuentzako luntxa Pagomendi elkartearen eta arratsaldean 17:00etan, umeentzako jolasak eta ondoren txokolatada. Jaiei amaiera emateko aurten ere San Migelen zeruratzea egingo da. Iaz globoz zeruratutako santua Riaoñ (Leon) inguruan agertu zen. **B**



Ohitura denez, Ikurriña jarriko da Herriko Etxean jaiei hasiera emateko.

3. adinean ematen diren aldaketei buruzkoa (martxoan). Izen-ematea Kutxako bulegoetan irailaren bukaerara arte.

► **Ana Orgazen** tailerrak hainbat ikastaro antolatu ditu: arte eta eskulanak

(izen-ematea Ardatzan eta Igartza mertzerian), ahots lanketa, erlajazio eta arnas-keta tailerra, masaje eta automasaje teknikak eta yoga ikastaroa. Azken hauetarako izen-ematea Etxeparen egin daiteke. Argibideak: 943 76 35 99.

► **Leniz Zeramika Eskolak** hastapen ikastaroa antolatu du, urriaren 5etik abenduaren 16ra. Klaseak astelehen eta eguaztenetan, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea (3.500 pezeta) eguaztenera arte zabalik: 943 79 87 95 (Angel).

### ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA  
Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

## GISASOLA BURDINAKI DENDA

*"Erratzu"*

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA



## MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

## LEHIAKETAK

► **Bergara Hiria XIV. Argazki Lehiaketa.** Lanak Kultur Etxean jasoko dira irailaren 30era arte. Argibideak: 943 76 39 96.

## DEIAK

► **Jardunek eta Aranzadi** Ikastolak urriaren 4an Tolosan ospatuko den **Kilometroa98**ra joateko autobusa antolatzen du. Iteera 9:45etan eta itzulera, 20:00etan edo 22:00etan. Izen-ematea (1.200 pezeta) urriaren 1era arte zabalik. 943 76 36 61.

► **Dardo jaurtiketa txapelketa** gaur, eguakitzan, 22:00etan Nahikarin.

► **Justo Garate Arriola beka.** Dokumentazioa aurkezteko epea eguaztenera bitartean zabalik. Argibideak: 943 77 91 58.

## OHARRAK

► **AEKk** euskara ikastaroak emango ditu Antzuolan. Argibideak Antzuolako udaletxean.

► **Euskal Herritarrok** taldeak urriaren 25eko hauteskundeetan botoa korreoz eman nahi dutenentzako bulegoa zabaldu du Arrano elkartearen, Irizar kalean, 10:30etatik 13:00etara eta

18:30etatik 20:30etara. 943 76 25 74 (Iñaki).

► **Eusko Alkartasunak** botoa korreoz eman ahal izateko bulegoa iregi du Alkartetxean, 11:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 19:00etara.

► **Musika Eskolan** helduentzako eratu den talde bereziak urrian hasiko ditu klaseak. Argibideak 943 76 57 80 zenbakian edo Musika Eskolako bulegoan, astelehenetik eguakitzera 17:00etatik 21:00etara.

## KINTADAK

► **1948an** jaiotakoak. Bihar zapatua 19:00etan meza Santa Marinaran, ondoren argazkia eta 21:30etan afaria Lasan.

► **1961ean** jaiotakoaren afaria urriaren 3an. Izen-ematea Nahikarin edo Dixulan astelehena baino lehen.

► **1943an** jaiotakoaren afaria urriaren 3an Antxonin jate-txean. Izen-ematea urriaren 1era arte zabalik. 943 76 22 90 (Maher), 943 76 16 13 (Arantxa Askasibar) edo Antxonin.

► **1936an** jaiotakoaren bazkaria urriaren 4an Antxonin. Aurretik, 13:00ean, meza izango da Santa Marinaran. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Eusebio IIan edo Antxonin.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

**Godzilla**  
Eguakitzan: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

#### El faro del sur

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

#### Promesas incumplidas

Eguakitzan: 22:00.

#### Mr. Magoo

Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.

#### City of angels

Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

#### Dr. Dolittle

Eguakitzan: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

#### Los amantes del

#### Circulo Polar

Eguakitzan: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

#### Armageddon

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

#### AZKOITIA. Baztartxo

#### Asesinos de reemplazo


Eguakitzan: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
**City of angels**  
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

### GODZILLA

**Zuzendaria:** Roland Emerich.

**Aktoreak:** Matthew Broderick, Jean Reno, Hank Azaria, Maria Pitillo.

Mundu osoan egiten diren filme interesgarrien bertsioak egiteko joera daukate estatu-batuarrek. Oraingo honetan, *Japon bajo el terror del monstruo* (1954) filmeko protagonistari *lifting* bat egin diote, efektu berezien mirariak aprobetxatuz. *Godzilla* mamuak New York hiria hankaz gora jarri eta biztanlegoa erabat beldurtuko du...



### EL FARO DEL SUR

**Zuzendaria:** Eduardo Mignogna.

**Aktoreak:** Ingrid Rubio, Ricardo Darin, Norberto Diaz.

*Sol de otoño* filmearren arrakastaren ondoren, Mignogna zuzendari argentinarrek umorea eta drama tartekatu ditu filme honetan. Euren gurasoak eta anaia txikia galdu dituzten bi ahizpen gorabeharak azaltzen zaizkigu. Bizitzeko toki egoki bat bilatzen duten bitartean beraien arteko harremana aldatzen joango da...

BERRIGARRAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.



DEBA  
GARAIA  
INMUEBLE ETA FINANZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## KONDE



Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**Urtero antolatzen diren udako brigadekin batera, Markos Gabilondo Chiapasen izan da abuztuan. Mexikoko gobernuak eta zapatistek 1994tik mantentzen duten borrokan nazioarteko begirale lanak bete ditu. Oraindik ere gobernuak zapatisten aldarrikapenak kontutan hartu ez dituela diosku.**

**G.** Aurretik ere bi aldiz egon zara Chiapasen. Bertaiko egoerak hobera egin du?

**E.** Nik uste dut okerrera egin duela. Gobernuaren eta zapatisten arteko elkarriketak hasi ondoren, 96an bi aldeen arteko hitzarmena sinatu zen, Samuel Ruiz San Cristobal de las Casas-eko gotzaiak bitartekari lanak egin zituelarik. Baina Mexikoko gobernuak ez du orduan agindutako ezer bete. Hori gutxi balitz, akordioak bete beharrean, intentsidade baxuko gerrateari ekin dio. Ejerzitoak gero eta presentzia handiago dauka Chiapaseko lurraldeetan eta bertakoek presio hori jasaten jarraitzen dute.

**G.** Zelako lana egiten duzue begiraleek?

**E.** Giza eskubideak betetzen ote diren zaintzeaz arduratzen gara. Chiapaseko egoerak eztanda egin zuenean, indijanak oihanean ezkutatu behar izan ziren eta beldur ziren ejerzitoak beraien kontra har zitzaketen neurrien aurrean. Orduan San Cristobaleko Gotzaitegiak nazioarteko begiraleak ekartzea eskatu zuen, giza eskubideen bortxaketa ahal den neurrian saihesteko. Begiraleok komunitateerata sartu eta bertan egoteko aukera dugu. Aurten komiteetatik zortzi lagun izan gara abuztuan Chiapasen, Veracruz-en eta Meridan.

**G.** Giza eskubideen bor-

MARKOS GABILONDO

Komite Internazionalistak-eko kidea

*“Badirudi Mexikoko gobernuaren helburua indijenak suntsitzea dela”*



Gabilondoren arabera Chiapaseko egoerak okerrera egin du azkenaldian.

txaketarik salatu duzue?

**E.** Ez, parean tokatu ez zaigulako. Abuztuan normalean baino begirale gehiago egoten direnez, gobernuaren portaera hobea da, nazioartean imajina ona zabaltzeko. Gobernuak ez du errekonozitzerik nahi Chiapasen gerra dagoela, bestela nazioarteko erakundeek zeresana izango luke-

**“Zapatistek lurra eta askatasuna, besterik ez dute eskatzen. Boterean dagoen PRI alderdiak diktadura baten antzera gobernatzen du”**

telako. Baina nekazariak eta indijenak zigortzen jarraitzen du. Ejerzitoa ez denean, paramilitarrak (lur-jabeek ordaindutakoak) edota kalez jantzitako militarrek komunitateetara sartzen dira eta bortxaketak, atxilotaketak edota torturak ia eguneroko gauza dira.

**G.** Badago konponbiderik Chiapasen?

**E.** Gobernuak bertakoen eskaerak onartu eta biolentzia moztu beharko luke. Zapatistek lurra (eskubide konstituzionala da lurra izatea) eta askatasuna, besterik ez dute eskatzen. Indijenak baztertuta daude gaur egun, laugarren maila batean daude eta badirudi gobernuaren helburua indijenak suntsitzea dela. Kontutan hartu Mexikon 10 milioi indijena direla eta 2 milioi Chiapasen bizi direla. Indijenek ez dute oraindik botoa emateko eskubiderik eta gutxienez beste guztien pareko eskubideak izan beharko lituzkete. Bien bitartean laguntza beharrezkoa zaie gobernuak gehiegikeriekin ez jarraitzeko, 70 urtetan boterean dagoen PRI alderdiak diktadura baten antzera gobernatzen baitu. Antolatu genuen jaialdi bati esker aurten ia 3 milioi pezeta bidali dira Chiapasera eta diru hori janaria lortzeko eta desplazatuak (200.000tik gora dira Chiapasen) atenditzeko bideratuko da.

**G.** Bestalde, milioi bat pezeta jaso duzue Saharako errefuxiatuen alde.

**E.** Udalak Komite Internazionalistak taldeari milioi bat pezeta eman digu eta diru hori Saharako errefuxiatuentzat 32 Land-Rover erosteko izango da. Tindouf-en diren errefuxiatuei euren desplazamentuetarako primeran etorriko zaie eta hauteskundeetan parte hartu ahal izango dute. **B**



# AHT Epeleko bailaratik joatea eskatu du berriz ere Udalak

## Angiozarko Bailarako Batzordeak alegazioak aurkeztuko ditu

**Abiadura Handiko Trenaren proiektuari buruz Estatuko Sustapen Ministerioari bidaltzeko alegazioak onartu zituen Udaltzak astelehenean.**

Gai honen inguruan lehenago hartutako erabakiak berretsi zituen Udaltzak: alde batetik, trenbidearen trazatua Angiozarko bailaratik egin beharrean Epeletik egitea, LKS ingenieritza enpresak egindako txostenari jarraituz; bestetik, trenbidea Angiozarko bailaratik joatekotan, trazatua Eduegi baserria baino gorago egitea, era honetan baserria botatzea ekiditeko.

Joan zen astean Abiadura Handiko Trenaren proiektuari alegazioak aurkezteko beste Pleno bat egin zen eta ez ziren alegazioak onartu, gobernu taldeko hiru zinegotzik ezin izan zutelako Plenora joan. Hortaz, Plenora joan ziren gobernu taldeko zazpi zinegotziek mozioaren alde bozkatu zuten, baina oposizioko beste zazpirak kontra. Berdinketa hausteko kalitate botoa ez erabiltzea erabaki zuen alkateak eta beste Pleno bat konbokatuz astelehenean mozioa onartzeko.

Alkateak joan zen aste-ko Plenoan mozioa onartzeko kalitateko botoa ez erabili izana eta astebete geroago beste Pleno bat konbokatuz izana kritikatu zuen Aitor Aranzabalek (HB) eta jo-



Abiadura Handiko Trenaren proiektua dagoenetan onartuko balitz, Eduegi baserria bota egin beharko litzateke.

kabidea ez zela oso etikoa eta serioa esan zuen. Alkateak erantzun zion erabakia hartzea berari zegokiola eta aurrekoan mozioa onartu ez izanaren arrazoia ekarri zuen gogora, hau da, gobernu taldeko zinegotzi guztiak Plenora joan ezin izana.

Bestalde, HB Abiadura Handiko Trenaren kontra dagoela esan zuen Aitor Aranzabalek. "Azpiegitura honen aurka gaude Euskal Herriaren beharrei erantzuten ez dielako eta gaiaren inguruan eztabaidarik egon ez delako. Etsaiak inposatutako proiektua da" esan zuen. HBk bat egin du Angiozar bailarako bizilagunak proiektuaren kontra egiten ari diren firma bilketarekin.

Angiozarko Bailarako Batzordeak AHTren eta trazatua Angiozarretik egitea-

ren kontrako firma bilketa egin du azken bi hilabeteotan. Dagoeneko 2.000 baino gehiago batu dituzte eta Jaurlaritzan aurkeztuko dituzte proiektuaren kontrako alegazioekin batera. Hil bukaeran amaitzen da alegazioak aurkezteko epea. Angiozarko Bailarako Batzordeak trenbide berria Epeleko bailaratik egitea eskatu du. Bestalde, alegazio berdina aurkeztuko dute bi hilabete hauetan batu dituzten 2.000 sinadura ingururen izenean. Horretaz gain, trenbidearen trazatua dela eta, zuzenean kalteak jasan go litzuketen baserriarrek, trenbidea Epeletik ezin bada joan eta Angiozarko bailaratik joan behar bada, trazatu alternatibo bat proposatzen dute, hau da, trenbidea 60 metro gorago egitea.

Era honetan, Eduegi baserriaren azpitik, lurpetik, pasatuko litzateke tren eta trazatuak eragin gutxiago izango luke dozena bat baserriak jabeen lursailetan eta soletan. AHT Angiozarko bailaratik egingo balitz, Angiozarrera bidean dagoen Hiru-azuo errotako presak apurtuko litzuke trenbideak eta errotako 25 jabeen izenean sinatutako beste alegazio bat aurkeztuko da trazatua Epeleko bailaratik egitea eskatuz.

Deba Garaiko Mankomunitateak trenbidea Epeletik egitea proposatu zuen hasieran; baina, ondoren, iritzi aldatu eta Angiozarko bailaratik egin eta Angiozarraren apeadero bat egitea proposatu zuen. Bergarako Udala horren kontra azaldu da. B



Egun hauetan obretan dihardute Osintxuko eskolan, geletako bat egokitzeke.

## Osintxuko haur eskola berriz zabalduko da kurtso honetan

Bost urtez itxita egon da; 9 bat haurrek ikasiko dute

**Osintxuko** haur eskola abian jarriko da berriz ere aurtengo ikasturtean. Guraso talde batek eta Bergarako Udalak egindako gestioen ondorioz, eskola berriz ere martxan jartzea lortu da. Honenbestez, Osintxuko haurrek eskolaurea bertan egin ahal izango dute. "Bi urteko umeak Bergarara etorri behar izan dira egunero autobusean goizeko 8:30etan eta horrek eragozpen haundiak sortarazten ditu" esan digu Iñaki Etxanizek, Osintxuko gurasoetako batek.

Orain dela bost bat urte itxi zuten Osintxuko haur eskola. Orduan Aranzadi Ikastolak mantentzen zuen, baina haur kopurua piskana jaisten joan zen heinean, Ikastolak jasotzen zituen diru laguntzak ere murriz-

ten joan ziren eta, koste haundia suposatzen zenez, itxia erabaki zen.

Azkenaldian, ordea, eskola berriz ere zabaltzeko gestiotan ibili dira haur txikiak dituzten Osintxuko guraso batzuk. Angiozarko eskolako irakaslearekin bildu ziren lehenengo eta, ondoren, Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzarekin. Iazko neguan ezetza jaso zuten: behar adina haur ez zegoela eskola berriz ere zabaltzeko. Halere, Altxoko eskola zabaltzekoa zela eta bertan 8 ume zituztela, Osintxun izan daitezkeen adina, enteratu ziren eta berriz ere heldu zioten gaiari. Koldo Pereira hezkuntza zinegotziak hartu zuen negoziazioen ardura eta Hezkuntza saileko ordezkariekin bildu zen aurtengo maiatzean Gastei-

zen. Uztaileko azken egunetan baietza jaso zuten.

Eskola egokitzeke lanak hasi berri dituzte eta urriaren erdialderako klaseak hastea da helburua. Eskolak dituen bi geletatik bat ludoteka moduan erabili izan da orain arte; bestea, nahiko egoera kaskarrean dago. Asmoa ludoteka elizaren lokaletara eramatea da eta libre geratzen den gela hori eskolarako egokitzea.

Osintxuko eskola ez da eskola unitarioa izango eta San Martin ikastetxe publiko gela bezala funtzionatuko du. Irakaslea Irune Zelaia bergararra izango da. 2 eta 3 urteko 9 bat ume arituko dira ikasturte honetan. Aurrerantzean, 6 urtera arte Osintxun ikasteko aukera izango dute bertako haurrek. B

### Eginen aldeko tonbolan 240.000 PTA batu zituzten San Martinetan

**Egin** eta Egin Irratiaren alde sosa batzeko San Martin bezperan jarri zen tonbolan 240.000 pezeta batu zituen Adierazpen askatasunaren aldeko herri ekimenak. Tonbola iluntzean jarri zen eta goizaldeko ordubatean itxi egin behar izan zuten, txartel guztiak (1.400) salduak zituztelako. Tonbolaren bultzatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete materiala laga zuten guzteei eta baita txartelak erosi zituztenei ere.

### Uste baino kontaktu gutxiago Irrati kontaktu Lehiaketan

**Surra** Irratizale taldeak joan zen asteburuan antolatutako 24 orduko Irrati Kontaktu Lehiaketan, hasieran uste baino harreman gutxiago egin zituzten. Normalean milatik gora egin ohi dituzte eta asmoa errekorra (1.600 kontaktu) haustea bazen ere, 400 inguru baino ez zituzten lortu. "Eguraldi ezinhobea egin bazuen ere, uhinen propagaziorako baldintzak ez ziren egokienak eta Italia eta Brasileko hainbatekin harremanetan jarri baginen ere, kontaktu gutxi lortu genituen" esan digu Ander Alberdik, taldeko idazkariak. Urriaren beste saiakera bat egiteko asmoa dute.

# Beasain-Durango eta Eibar-Gasteiz atzeratzearen aurka

## Deba eta Urolako 18 alkatek alegazioak aurkeztu

**Eibar-Gasteiz autopista eta Beasain-Durango errepidea eraikitzeko epeak betetzea eskatu diote Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Diputazioari, Deba bailarako eta Urolako 18 alkatek, tartean Victoriano Gallastegi eta Mikel Larrea, Bergara eta Antzuolako alkateek.**

maiztegi eta Bergara (Ipiñarri ingurua) lotuko dituen, datozen bi urteetan egitea; bestetik, Eibar-Gasteiz autopista 2004. urterako amaitzea.

Eibar-Gasteiz autopista eta Beasain-Durango errepideak lehentasuna zutela eta premiazoak zirela esaten zuten Lehenengo Garraio

Plan Orokorrean. Bigarrenak, ostera, atzeratu egiten ditu bi obra horiek egiteko epeak. Hori dela eta, Deba eta Urolako alkateek uste dute Gipuzkoako Diputazioak bi bailarok ahaztuta dituela eta Lehendabiziko Errepide Nazionalaren eta Donostialdearen alde jokatzen duela. B

II. Errepide Plan Orokorren kontrako alegazioak bidali dizkiote hemezortzi alkateek Antton Jaime Garraio diputatuari. Egitasmo horretan, datorren urtetik 2010. urtera arte Gipuzkoako lurralde historikoko errepideak hobetzeko aurrekusi diren inbertsioak jasotzen dira. Bi dira 18 alkateek Jaurlaritzari eta Diputazioari egin dizkioten eskari nagusiak: alde batetik, Beasain-Durango errepidea bukatzeko geratzen den zatia, Or-



Eibar-Gasteiz eta Beasain-Durango lehenbailehen egitea eskatzen dute.

## Jose Luis Elkorok Egin kasuagatik deklaratu du

### Garzon epaileak

Jose Luis Elkorok Eginen kasuagatik deklaratzera deitu zuen joan zen astean. Man Karmen Aias-tuik, Elkororen emazteak, BERRIGARARI adierazi dionez, epaileak deklarazioa hartu eta kargu barik laga zuen Bergarako alkate ohia. Une honetan, Soto del Realen dago, Martutenera noiz ekarriko duten zain.

## Urteaga 8ko etxea erosiko du Udalak

**Astlehenean** Urteaga 8ko etxea erostea onartu zuen Udalbatzak aho batez. Uhola errekarren bideratze lanak direla eta, etxea 8.550.000 pezetan erosiko du Udalak. Etxabea botatzea nahikoa zen, baina etxe guztia erosi eta botatzea erabaki du Udalak.



# Gaspar

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-a**

Barrenkalea 31    Tf. 943 76 20 02    BERGARA

# Garnish

## Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

## Deco-Textil

# ZANGITU

Etzerako lantzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, eta abar.

**Herrilagunak 3-5**  
☎ 943 76 08 69

# ESPOLON



**School of English**

**INFORMAZIOA**

Ibargarai 31,  
barruko plaza,  
BERGARA.  
Telefonia eta faxa:  
943 76 03 53.

Astleheneetik eguakitzera  
10:00 - 12:30  
16:00 - 19:00

## INGELESA

### 98-99 ikasturtea matrikula zabalik

- ▶ KLASEAK GOIZEZ, EGUERDIZ ETA ARRATSALDEZ
- ▶ HAURRAK 6 URTEK AURRERA
- ▶ GAZTEAK ETA HELDUAK
- ▶ AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- ▶ ENPRESAK: INGELES TEKNIKOA ETA KOMERTZIALA
- ▶ IKASTARO TRINKOAK
- ▶ CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO AZTERKETETARAKO ES438
- ▶ DEBA-DURANGALDEKO KOMITEKO KIDEAK. ABENDUKO DEIALDIRAKO MATRIKULA ZABALIK

# Berrigara

336 zenbakia.  
1998ko irailaren 25a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
E.mail: berrigar@sendanet.es  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketak:**  
Estepan Plazaola, Alex Labaien.  
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereizabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugaldé, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Ellexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketia:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkiak: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

### PARE BAT PUNTUALIZAZIO

BERRIGARAREN 333. alean (irailak 4) kaleratu zen elkarrizketan egin nituen adierazpenak direla eta, zera argitu nahi dut: BKEko aurreko Zuzendaritza Batzordeko norbait mindu banuen, nire barkamenak eskatu nahi dizkiot, ez baitzen hori nire nahia.

Bestalde, lerro hauek aprobetxatu nahi ditut aurreko zuzendaritzako ki-deei eskerrak emateko egindako lanagatik.

*Carlos Arnaiz,  
Bergara K.E.ko  
presidentea*

### ITURRIA ERROTALDEN

Kultur Etxera, liburute-gira batez ere, sarri joaten gara, normalean ikastera eta etxeko lanak egitera. Arratsalde asko pasatzen ditugu bertan. Liburu eta paper artean orduak eta orduak eman ondoren, kanpoko lorategira, atsendaldia hartzera, joateko ohitura daukagu. Gure kontuez berba egin, kotillatu, zigarro bat erre, Kultur Etxeko atarian dagoen kafe makinan zerbait hartu...

Halere, gauza bat botatzen dugu faltan. Badakigu orain dela urte batzuk iturria zegoela Kultur Etxeko lorategian, etxeko sarrera alboan, errekako hormaren kontra. Iturriaren azarnak badaude oraindik, baina urik ez dago. Agortuta dago. Eta pena da, askotan izaten baitugu ur txorrotada freskoa hartzeko gogoa.

Eskutitz honen bitartez eskatu nahi genuke, posible baldin bada behintzat,

iturrian ura jarri dezatela berriz ere. Posible ez baldin bada, freskagarrien makina bat jar dezatela, askori ondo etorriko zaigu eta. Seguru gaude jartzen duenarentzat errentagarria izango dela, pote asko salduko lirateke eta.

*Aitziber Aranburu*

## tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Zela jaso zenuen ETaren su-etenaren notizia? Zein izan daiteke hurrengo pausua?



**Carlos Bengoa**

Oso notizia pozgarria izan da. Orain ikusi egin behar Madrilek zer esaten duen... Hemengo alderdiak batuta egonik, konpromezu batean jarri dituzte hangoak.



**Kontxi Aristimuño**

Ondo. Politikoeek lanean jarraitu beharko dute hemen-dik aurrera. Nik uste dut kontsentso batera heltzeko guztiak zertxobait gehiago jarri beharko dutela.



**Roberto Aranzabal**

Nik uste danok oso ondo hartu dugula notizia hori. Orain Madrilek eman beharko du hurrengo pausua. Nik behintzat ez daukat fede handirik...



**Lierni Narbaiza**

Ondo. Badirudi gauzak zertxobait aldatzen hasi direla eta ea zerbait lortzen dugun... Oraingoz, Euskal Herrian Madrilen baino jarrera hobea ikusten da.



**Javi Garmendia**

Oso pozgarria izan da. Hemengo partiduek indar gehiago egin beharko due, "frente comun" bat. Pausu handi bat izan daiteke hori besteak mugitzen hasteko.



**Maria Rosario Iribar**

Hasierako inpresioa ona izan da. Poztuko nintzateke bakea lortuko balitz. Horretan dabilzanek jakin beharko lukete nundik jo. Pakea guztiondako dago ondo.

**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Jose Fernandez**en deia jaso dugu aste honetan BERRIGARAKO erantzungailuan. Jose Fernandezi azkeneko hila-beteetan Anbulatoriora ia astero joatea suertatu omen zaio eta berak dioskunez ordutegia ez da batere errespetatzen. Askotan txanda eskatu, orduaren agindua jaso eta medikua ordu hori baino beranduago hel-tzea ikustea tokatu zaio Joseri. Beste batzuetan, agindutako ordua baino askoz ere beranduago sartu izan da kontsultara eta beraz, kontu handia-koz jokatzeko eskatu nahi die Anbulatorioko arduradunei, jendeak denbora pilo bat galtzen baitu alperrik Anbulato-rioko pasiloetan.

■ ikuspuntua: **monika belastegi**

## Estatistika kontuak

Espainolek amodioa gero eta gutxiago eta denborarik minimoena dedikatuz egiten dute. Hori dio, behintzat, orain bizpahiru egun egunkari batean azaldutako ikerketa batek. Ikerketa honen arabera, mundu mailan aztertutako hamalau herrialderen artean, Espainia bederatzigarren tokian dago larria jotzeari dedikatutako denborari dagokionez; 14,7 minutu eskaintzen dizkiete espainolek izara arteko jolasei. Eta konparazioarako baino ez ditut jarriko ondorengo datuak: haragizko jardun hauetan denbora



horri ez dakit denbora luzez eutsi ahal izan-go dioten. Izan ere, egunkariko albistearen arabera, hiru dira maitale itsuroso baten ezaugarriak: bikotearen plazerrarekiko interresa, eskaintako denbora eta maiztasuna; eta hiru ezaugarri hauek kontutan izanda, ikertutako hamalau herrialdeetatik hamaika

gehien ematen du-tenak estatu batua-rrak omen dira, 28,1 minuturekin eta, azkarrenak, Tailandia-ko biztanleak, 10,4 minuturekin.

*Latin lover* irudi

garren postua dagokie. Don Juanen garaiak oso urruti daude, antza denez.

Ikerketa honek, kontuan gizon eta emakumeak hartzen bazituen ere, artikulua amaitu ostean, irakurtzen emandako denbora guztian, bertan zioena gizonezkoekin baino erlazioan ez nuelako pentsamendua etorri zitzaidan burura. Batek jakin zergatik.

Espainolen gainean aritu naiz orain arte, baina ikerketa horretan euskaldunak kontuan hartu izan bagintuzte, zein toki izango genuke mailaketa horretan? Agian, Kristautasuna inposatu aurretiko euskaldunen izaeraren apurrik gelditzen zaigu oraindik amodio kontu hauetan. Edota agian ez. **B**

# B e r g a r a k o

## OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIAINDIA Cristina.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren.** (Reeducacion Postural Global) Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ekerra. 943 76 70 91 ■ **PEDAGOGOAK: IZETA Maribi.** (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) Simon Arrieta 3, 2-E. 943 76 26 42 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: FERNANDEZ J.R.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76 ■ **REUMATOLOGIA: MORAGUES Carmen.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39



## Umore-Onaren urrezko ezteiak

Umore-Ona elkarteko bazkideek elkartaren sorreraren **urrezko ezteiak ospatzeko bazkaria** egin zuten San Martin egunean Azpeitxi jatetxean. Eguerdiko meza-  
ren ostean **Kobok** dultzaineroek alaitutako poteoa egin

zuten eta, jarraian, 65 lagun inguru bildu ziren bazkarian. Bazkalostean, giro ezin hobean, bizi-  
rik diren bazkide sortzaileek plaka bana jaso zuten oroigarri modura. Honako hauek izan ziren omen-  
dutakoak: **Luis Agirre, Ramon Azpeitia, Jesus Berroya, Jose Erdabide, Jesus Ibañez, Inazio Madinabeitia, Roman Mujika, Miguel Oianguren, Bixente Okina, Jesus Sanchez, Genaro Suinaga, Andoni Ugalde, Jesus Urkiola, Jose Luis Zabaleta eta Pablo Zabaljauregi**. Argaz-  
kian, omendutako bazkideetako batzuk. Urte amaiera bitartean ospakizun gehiago antolatuko du elkarteak. Zorionak!!



## Bertso jaialdi bikaina

Bertsozale ugari bildu ziren zapatuan No-  
vedadesen, **Jardunek** antolatutako bertso  
saioa entzuteko asmoz. **Joserra Gartziak** ja-  
rritako gaiiei, erantzun bikaina eman zieten  
bertsolari guztiek, partaide eta publikoaren  
arteko konplizitatearekin umorea nagusitu  
zelarik. ETB-ko **"Hitzetik hortzera"** saiko-  
ek jaialdiko laburpentxo bat eskainiko dute  
hurrengo egunetan. Joaterik izan ez zutenek  
pantaila txikian bertsoekin gozatzeko aukera  
berri bat izango dute. Adi beraz...



## Patata ikusgarria

**Juan Sanchez** ileapaintzaileak **2,290 Kg.**ko patata jaso du Basalgon duen ortuan. Ez da Sanchezek patata ikusgarriak jasotzen dituen lehen aldia eta aurten kilo pasatxo pisatzen du-  
ten hainbat patata ere batu ditu. Sekretua, bere ustetan, ilbehe-  
ra dagoen egun jakin batzutan patata erein, jorratu eta lurrare-  
kin estaltzean dago. Ongarri modura zabor organikoa erabiltzen  
du. Emaitzak begibistan daude. Oraindik ez daki patatarekin zer  
egin baina ziur ingurukoek eskertuko diotela tortila on bat gerta-  
tzea... Oraingoz ez dauka bi kilo patata erostera joan beharrik, pa-  
tata batekin nahikoa dauka eta. On egin!!



■ asteko menua: **tartufo jatetxea**

# Txopito eta zigala entsalada epela



BEGO eta ANGEL ARIZABAETA

Tartufo jatetxeoak

## OSAGAIAK (4 lagunentzat)

- Letxuga bat
- 2 tomate
- Berakatz buru bat
- Endibia bat
- Atun papar bat
- 4 antxoilla
- 4 zigala
- Kilo laurden txopito
- 3 piper berde
- Pikillo piper bat

## PRESTAKETA

- Letxuga juliana erara moztu eta bandeja eder baten erdian ipini.
- Letxugaren inguruan, antxoilla eta atun paparrarekin betetako lau endibia orri jarriko ditugu, plantxan egindako zigalekin eta tomate xerrekintartekatuz (tomateari berakatz txikitua botako diogu gainean).
- Zartaginean, piper berde eta pikillo zati txikiak su bajaran potxatzen ipini.
- Beste zartagin batean, kipulak eta bi piper berdeak potxatu.
- Txopitoak salteatu, kipula eta piperrekin nahastu eta gatz eta ozpinarekin maneatu. Hau guztia letxuga gainean ipini eta guztia lehen potxatutako piperrekin maneatu.

■ adituen esanetan

## Alzheimer gaisotasuna

IÑAKI URGOITIA, *medikua*

Alzheimer ez da gaitz berria, izan ere mende honen hasieran deskribatu baitzen lehen aldiz (izena orduko mediku bati zor dio). Normalean 65 urte-tik gorako jendearen artean ematen da, gaur egun adin horretako %4-15 tarteari afektatzen diolarik. Alzheimer dementzia mota bat da, burmuineko gaisotasun bat litzateke eta ezinezkoa da prebentzioa egitea. Agertu ahala, piskanaka-piskanaka neuronak galduz doaz eta beraz burmuineko funtzioak afektatuak izaten dira, tartean oroimena, adimena, ulermena, hizketa edota adimena. Beraz, gaisoak bere mediora egokitzeke zailtasunak izaten ditu. Gai-

sotasun kronikoa da, sendabiderik ez duena.

Alzheimer sufritzen duten gaisoen familiarrek ere pazientzia asko behar izaten dute, oso neketsua gertatzen baita gaiso hauek zaintzea. Horrela, zaintzaileentzat ikastaroak antolatzen dira (Bergarako anbulatorioan ere izan dira) eta badira, familiarrei atsedean pisat emateko, gaisoak jasotzen dituzten zentroak ere (Eguneko zentroa adibidez). Bestalde, Alzheimer Gaisoen Gipuzkoako Elkarteak 400 bazkide inguru ditu jadanik eta domekan Zarautzen bildu ziren, gaisotasun honen problematika gizarteratzeko. B

■ bergarako gordailutik

## SAN MIGELEKO KANPAIA Imanol Sorondo

*S*an Migueleko kanpaia entzutetsua izan da; ez zen handienetakoa, baina bai hots ederrekoa. Eguerdian eta amezkilan otoitzerako jotzen zen; gainera, inguruan suterren bat sortzean, Labegarai eta Mizpildi bitartekoren baten heriotza gertatzen zenean, bere ermitara azaltzen ziren zaletuak eskatutakoan, eta, batez ere, ekaitz arriskua zekarten hodeiak ikusitakoan. Danbada denboran eta moduan nolakoa zen, hala-koa oharra eta mezua, eta denak berehala jabetzen ziren.

*“Itxita egon zen garaian ere beti jo izan zuten San Migueleko kanpaia”*

Ermitaren ondoan zegoen etxean serorak bizi ziren eta, beste egin-kizun batzuen artean, eliza zaintzen zuten eta inguratzen zirenei laguntza ematen zieten; kanpai jotzea ere bere esku gelditzen zen; horretarako zenbait garaitan lokarri bat zeukaten bere etxetik kanpai tokiraino. Seroara hoiek astean behin diru eskea egiten zuten herriko karrketan, eta garia eta artoa ere jasotzen zituzten uzta garaian baserrietan, hau hodei kanpaien izenean. Jende batzuk uste zuten kanpaia berak eta bere hotsak zituztela hodeiak uxatzeko indarra, eta baserritar gehienak kanpai jotzaileari bi laurden gari ematen zioten, eta konjuroa egiten zuen apaizari, berriz, bat bakarra. Hamalau anega gari bilduko zituzten serorak lehenengo eta eliza zaintzen zuen bertako baserritararak, gero. Bitartean, 50 urtez Ermita hondatuta eta itxita egon zen Kontentzioko gerraren ondoren, eta serora-etxea saldu egin zuten.

1825. urtean bedeinkatu zen Ermita berriro inguruko baserritarren laguntzarekin. Itxita egon zen garaian ere beti jo izan zuten San Migueleko kanpaia. B





# SHOTOKAN KARATE-DO



*Shotokan txapeldunen eskola!*



- Gure lagunei eta gurekin karatea ikasi nahi duten guztiei gogoratzen diegu, denboraldi honetako klaseak hil honen 21ean hasi direla, ondorengo orduetan:

**Umeak: 18:00etatik 18:45etara**

**Nagusiak: 18:45etatik 20:00etara.**

- Ikastaroak **Joxean Iñarra** irakasleak emango ditu, titulu hauen jabeak:

Gorputz hezkuntzako lizentziatua (INEF)

Karateko gerriko beltza 2. Dan-a

Ninjitsu gerriko beltza 2. dan-a

Karate entrenatzailea

Ninjitsu entrenatzailea

Karate-epailea

eta, gainera, Karateari buruzko material

didaktikoa gertatzeko Deba Garaia

Mankomunitatearen beka lortu berria duena.

- Oharra: **hileko kuota 3.000 pezetakoa izangö da** (matrikula doan).

Gurekin harremanetan jartzeko deitu 943 76 07 21 telefono 21.00 eta 22.30 artean edo zatoz Miguel Altuna berriko gimnasiaora entrenamendu-ordutan.

## Ariznoa gimnasia erritmiko taldea

Irailaren 28an Gimnasia erritmikoko denboraldia hasiko da. Kirol polit honetan interesatuta dauden 6 urtetik gorako neskek, telefono hauetara dei dezakete informazioa jasotzeko:

943 76 32 08 (Margari) edo


943 76 52 05 (Mertxe)

**Ordutegia:**

**martitzen eta eguenetan,**

**17:30-19:00.**

**Miguel Altuna berria.**



*Aupa neskek, anima zaitetze! Zuen zain gaude!*

# Berrigara Gida 99



Berrigara Gida 99, Bergara eta Antzuolako telefonoen gida pres-tazen dihardugu. Aitziber Aretxaga (argazkian) arituko da komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko ditu.

Aurten ere intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 99 liburutxoak: **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke (943 76 03 97).

**Berrigara** BERGARAKO ARGAZKIA

# kontuola

**KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparra-girre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 22 zenbakia. 1998ko irailaren 25a.*

## Eskolako haurren jakinduria saritua

### Karmele Alzueta saria, giza gorputzari buruzko saiakerak

**Zer gertatzen zaio ogi zati bati ahora eramaten dugunean? Aurreko ikasturtean herriko ikastetxean 6. mailan aritu ziren neska-mutikoeek badakite. Eta gainera hori azaltzeko eta ulertarazteko gai direla ere erakutsi dute. Horrela adierazi du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Joan den uztailaren 2an, Karmele Alzueta sarian, ohorezko aipamena izan zuten "Saiakera konstruktibista bat Lehen Hezkuntzan: Giza Gorputza" lanaren kalitateari esker.**

**E**usko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtero ematen du "Karmele Alzueta" saria. Horren bitartez, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako proiektu berriak eta irakasteko edo antolatze praktikan berrikuntzak sartzeko jarduerak saritzen ditu. Hori dela eta, eskolak 6. mailako haurren lana aurkeztu zuen lehiaketara. Giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruko lana da antzuolarrek egin dutena. Haurrek hautatu zuten gaia eta eurek dakitenaren arabera landu zuten. Ikastetxeko Pantxike Arinek, zuzendari ohiak, azaldu digunez, "lan hau garatzeko haurrek zekitenarekin hasi ginen, esaterako ogi pusketatik hartu eta zer gertatzen zaien azaldu zuten banan-banan, ogia ahora sartzten duten unetik. Azalpen barik gelditzen direnean baino ez diegu laguntzen edo azalpen berriak ematen. Antzuolako ikastetxean indarrean dagoen konstruktibismo metodologia hau hainbat eskolatan lantzen ari da. Eraikitzen joaten dira eurek dakiten eta ulertzen dutenaren arabera eta gehiago ezin dutenean, azalpen berriak ematen dizkiegu. Modu na-

tural batean euren arrazoienez bitartez ikas dezaten lortzen dugu".

#### Lana argitaratzea

Giza gorputzari buruzko saiakera konstruktibista hau argitaratu nahi du Eusko Jaurlaritzak. Horretarako, irakasleek lana berregituratu eta 50 orritan bildu beharko dute, ondoren Hezkuntza Sailera eramateko. Antzuolarren lanarekin batera, Donostiako Amara Berri eskolako, Tolosaldea eskolako eta Portugaleteko eskolako lanak argitaratuko dira. Lau eskola horien artean, Lehen Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ikastetxeak daude eta horien artean antzuolarrena izan zen euskaraz egin zen bakarra.



*Iazko 5. mailako haurrek Kosmosa gaia landu zuten. Argazkian, gurasoei gaia azaltzen.*

■ ■ ■  
*Giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruko lana egin zuten*  
■ ■ ■

**Presoen aldeko plataforma**

Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuola-ko Plataformak bilerak egiteari ekin dio. Hamabostero, martitzenetan, elkartzten den talde honek arratsaldeko 19:00etan egiten ditu bilerak. Orain arte eliza ondoko aretoan biltzen ziren arren, Udaletxean elkartzeko eskaria egin dute plataformako kideek. Gauzak horrela, hurrengo bilera irailaren 29an, martitzena, izango da, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan.

**Arrolaren irteera**

Anetora joango dira Arrolakoak urriaren 10etik 12ra. Izen ematea urriaren 5ean eta 6an 7etatik 8etara Arrolaren lokalean egin beharko da.

**Galdutako betaurrekoak**

Joan zen abuztuan graduatutako betaurrekoak aurkitu zituzten Ibarondo auzoan. Dirudienez, betaurrekoek emakume batenak izateko itxura guztia dute eta zorro eta guzti daude. Argibide gehiago nahi izanez gero, Udaletxera joan daiteke eta han galdetu, bertan jaso dituzte eta.

**Irinmodo lehiaketa**

Aurten Irinmodo urtekariak hamar urte bete ditu eta hori ospatzeko, sari berezia banatu nahi izan zen lehiaketa baten bidez. Irabazlea Jesus Goñi izan da eta berak eraman du hamar Irinmodoan bilduma koadernaturik. Zorionak, bada, Jesusi!

**Zuzenketa**

Aurreko Kontuolan gaizki jarri genuen Loietatik Arrandarirainoko mendibidea egiteko Arrandariko bizilagun bakoitzak ipini zuen diru kopurua. 500.000 PTA izan zirela esan genizuen, baina bakoitzak 1.500.000 PTA ordaindu ditu.

# IV. Argazki lehiaketa

**Laugarren urtez Antzuolako Udalak antolatzen duen argazki lehiaketa abian da. Opor ostean antolatu ohi den lehiaketa honetan parte hartzeko aukera ezberdinak daude. Bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake lehiaketara.**


“Oporretako IV. argazki lehiaketak” bi maila bereizten ditu. Lehenengoan 25 urte arteko lehiakideak arituko dira eta bigarrenean, berriz, 25 urtetik gorakoak. Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke, eta guztiak 30x40 zentimetroko kartulina beige batean aurkeztu beharko dira. Argazki bakoitzak izen bat eraman beharko du eta berarekin batera izen bereko sobre bat entregatu beharko da egilearen datuekin.

Bi mailetakoa irabazleek 25.000na PTA jasoiko dituzte eta bigarrenek, berriz, 15.000na PTA. Antolatzaileek adierazi digutenez, “urtetik urtera partehartzaile gehiago dago eta argazki kopurua geroz eta handiagoa da; iaz, esaterako, 44 argazki jaso genituen. Horien artean, gehienak koloretan ziren. Gaiei dagokienez, askok urruneko herrialdeetan ateratako argazkiak dira, baina badira hemengo erretratuak aurkezten dituztenak ere. Orain dela bi urte Donostiako irudi batekin eskuratu zuten lehenengo saria”.

Lanak aurkezteko epea urriaren 13an amaituko da eta ondoren, lehiaketan parte hartutako argazki guztiekin erakusketa bat egingo da Udaletxeko aretoan.

## KANPOKO FITXAKETAK

**Joan zen** zapatuan hasi zuen 98-99ko denboraldia errejonaleko bigarren mailako futbol taldeak. Andoni Azkargortaren mutilek Elgoibarren aurka jokatu zuten eta bana egin zuten partidu istilutsu batean. Ibon eta Eneko Segurola anaiei puntuak eman behar izan zizkieten buruan. Elgoibartarren artean ere jokalarietako batek min hartu zuen, buruan kolpe handia hartu ondoren.



Unai Irazola.



Urko Irizar



Raul Fortuna.



Andoni Elgoro.



Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

GURE ARTIAN


Zer diozu  
ETAk joan  
den astean  
indarrean  
jarritako  
mugarik  
gabeko  
su-etenaz?



**Fernando  
Iturbe  
HB**

**P**entsatzen jat aukera historiko bat dala eta aukerak darella danon artian konponbide bat aurkitzeko. Konponbide hori autodeterminaziño eskubidian eta lurraldetasunian oiñarrituta egon bihar da. Us-

te dot danok lana egitteko momentua dala, elkarrekin lana egittekoa, batez be abertzale eta progresisten artian. Ikusiko dogu ondoren zer gertatzen dan.



**Florentino  
Lamariano  
EAJ**

**O**so ondo ikusten dot eta premiñazkua irizten jat aurrera egitteko. Gaiñera us-te dot gure alderdi-xak lan asko egin dabela hori lortzeko. Oso ondo ikusten dot ETAk hartu daberen posturia. Horri zukua etara-

tzeko danen artian konsensoa egon biharko zan, biharrezkua da ta. Lehen Madrilgo alderdixak, tregua egon biharra ipintzen zeber aitzakixa moduan. Oin, tregua hori badago eta ikusi biharko da ze mamin etara leikien horri. Hortarako, alderdi danen akordio bat egon bihar da, danak onartu bihar dabe ETAk emondako tregua hori.



**Juan  
Benitez  
PSE-EE**

**L**ehenengo eta behin pena bat dela esan behar dut, orain arte galdu dugun denbora guztiagatik. Orain dela 20 urte izan behar zen, polimiliek utzi zutenean. Ez dut ikusten su-etena deitzeo arrazoirik, gober-

nuak ez baitu bere jarrera aldatu. Baina gauza asko gertatu dira. Gizartea kalera atera da ETAREN aurka. EAJ kontuan izanik, ETA EAJtik sortu zen eta sorburura itzuli da. Orain dela urte batzuk ez zuten elkar ulertzen eta orain, badirudi ETA konbentzitu dutela. Epe luzera espero dezagun guztiok izatea nahikoa intelijentzia eta borondate ona aurrera egiteko. Azken finean, osasunez eta memoria gutxiarekin gauza asko egin daiteke.



**Pilar  
Etxaniz  
ZUTIK**

**E**goera zihero estankaturik zeguala ikusitta zerbait aldatzia suposatzen dau. Positibua pentsatzen jat bihartzan dabela, PSOE eta PP, zerbait egittera, eron aldetik erresistentziak egongo dien arren.

Positibua dala pentsatzen dot gizartian ilusiño bat sortu dalako, nahiz eta horrek bere alde negatibua ere euki: guk pentsatzen badogu dana ondo jungo dala beste barik, ezta hola. Erronka guk daukogu, eztago aitzakixarik. Gehixago konprometitzera bihartuta gare. Erronka garrantzitsue-na gizartiak dauku eta egiten dogunaren arabera etorriko die emaitzak pe. Komunikabidiak pe, batez be espainiarrak, zeresan haundixa dauke.



**Gregorio  
Madariaga  
EA**

**E**uskal Herrirako aspaldiko urte-tan hartu doten notiziarik onena da. Esperantza haundixa daukat, baiña lehenengo Madrilgo Gobernua hasi biharko litzake presuen zentzuna ikusiaz, poliki-poliki hona eka-

rra eta legez kanpuan egon biharko leuikienak etaraten. Presuak barruan daren bittartian bakerik ez-tala egongo seguru nago. Gaiñera Euskal Herrixan autodeterminaziño aukeria ezta herrixak eskatu bihar daberen gauza bat, herrixaren eskubidia da ta. Hori oso garrantzitsua da Euskal Herrixaren independentzia lortzeko. Badakit independentzia zaila izango dana eta guk eztogula ezagutuko, baiña atzetik datozenak ezagutuko dabe.

**GOROSTI  
Taberna**

☎ 943 76 62 96  
Zurrategi plaza ANTZUOLA

*igor eta Txomin*

*Pintura orokorrean.  
Paper, tela, binilo, kortxo-zoko... estaldurak.  
Gotelesa, iztukuak eta  
bestelako imitazioak.*

ANTZUOLA BERGARA  
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98



**Euskal  
sukaldaritza  
Eguneko  
menua**

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

# Ibon Kerejeta

## Arin jatetxeko lagun berria

Joan zen asteko martitzenean zabaldu zuen Ibon Kerejeta legazpiarrak Arin jatetxea. Hilabete bat itxita egon ondoren, 24 urteko gazte honek bultzada bat eman nahi dio garai batean hain famatua izan zen "Santionekuari".



**N**

**olatan erabaki duzu Antzuolara etortzea?**

Koadrila guztia Antzuolako daukat eta hemengo giroa asko gustatzen zait. Oso giro herrikoia. Oso garrantzitsua

da jendearekin lanean zauden bitartean gustura egotea, eta hemen oso gustura nago. Arinen atzetik lau urte neramatzan, baina Iruñera joan nintzen lanera. Ekuadorren egon nintzen beste jate-txe batean. Abixua utzi nuen alokatzen jarriz gero, ni segituan etorriko nintzela. Jendearen harrera ere oso ona izan da.

**Lehenengo aldia da jatetxe bat hartzen duzuna?**

Sukaldaria naiz, baina nire kabuz ikasi dut. Lanean Zarautzen, Madrilan, Donostian, Iruñean, Ezkion eta Bergaran izan naiz. Ekuadorren ere bai, hemengo ezagun batzuekin jatetxe bat ireki genuen eta. Baina gaizki atera zen eta bi hilabeteren ondoren etorri egin nintzen.

**Zenbat lagun ari zarete lanean?**

Hiru lagun ari dira lanean. Alazne eta Ainara zerbitzari lanetan eta Manolo sukaldean.

Alazne, Manolo eta ni Ezkioko sagardotegian aritu ginen. Hiru hilabete egin genituen eta orain hona etorri gara.

**Jatetxeko dekorazioa eta estiloa erabat aldatu duzu.**

Bai, asteartean esaterako jendeak ez zuen pentsatzen hain eroso eta hain goxo jarriko nuenik. Jatetxearen aldeko

apustua egin dut eta jendeak hau jate-txea dela ulertzea nahiko nuke, hori niretzat oso garrantzitsua da, tabernaren funtzionamenduan eragina izango baitu.

**Zelako janariak ematen dituzue?**

Eguneko menua eta kartaren artean hautatu daiteke. "Pikatzeko" aukera ere badago eta hortan ere eskaintza zabalda da, 600-1.500 PTAn. Gustatzen zaidana landutako platerak prestatzea da. Jendeari gauza berriak modu eta prezio onean eskainiz gero probatu egiten ditu, baina eskertuko nieke janariari buruzko iritzia ematea eta egia esatea.

**Arineko plater berezia?**

Karta tradizionala da baina berezitasun bezala pastel dastaketa daukagu: onddo-budina, arrain-pastela eta gari-esparragoen pastela; bestalde entsalada epela eta txapiroaiak, eta onddo-nahaskia foierekin ere baditugu. Postretan, berezitasuna piku biskuita txokolate beroz estalia da.

**Zer gomendatuko zenioke bikote bati?**

Urdaiazpikoa eta onddo-nahaskia eta gero bati kokotxak pil-pilean eta besteari solomilloa pikillo piparrekin, lurrezko platerean eta patatekin. Postrerako pantxineta.

**Eta gazte talde bati?**

Poltsikoari begiratu, entsalada misto berezia, esparragoak eta bakaila-oda edo baserriko oilaskoa. Hala ere, ez nuke jendea klasifikatu nahi.

■ ■ ■  
 "Jendeari gauza berriak modu eta prezio onean eskainiz gero, probatu egiten du"  
 ■ ■ ■



Alazne, Manolo, Ibon, eta Ainara, Arin jatetxeko lagun berriak.

  
**DESKARGA**  
**AUTOAK**  
 Antigua auzoa z/g Antzuola.  
 Tf. 943 76 62 75

  
**zabalo**  
 IGELTSEROTZA  
 Jose Luis Zabalo  
 Birgaitzeak • Fatxadak  
 Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak  
 Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

**GAILUR**  
 taberna eta  
 gozotegia  
  
 Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
 Tf. 943 78 70 32

**LEKU-BERRI**  
**MERENDEROA**  
**Janariak eta edariak**  
 Tf. 943 76 60 94

# BAKE PROZESUA ABIAN

**ETAk San Martin egunean iragarritako su-etenaren ondoren, bake prozesuaren inguruko bi galdera luzatu dizkiegu hainbat arlotan diharduten bergarar ezagunei.**

## MARI KARMEN GALLASTEGI

*EHUko irakaslea*



*"Gizarte demokratiko eta bake-tsua herentzian uzteko aukera ikusten dut"*

1. Su-etenak herri honentzat itxaropen handia suposatzen du, gizarte demokratiko eta baketsu bat herentzian lagatzeko aukera posible ikusten delako. Bakea gauzatzeko baldintza asko betetzea derrigorrezkoa da: euskal alderdiek Euskadirentzat planteatzen dituzten proposamenak garbi azaltzea, euskal gizartearen gehiengoak nahi duena onartzea eta, azkenik, ETA konbentzitzea borroka armatua laga dezan.

2. Su-etenak eragina edukiko du, behingoz, biolentziarik gabeko entzono batean izango direlako hauteskundeak. Lojikoak litzateke orain arteko egoerarengatik zigortua izan den boto abertzaleak gora egitea. Dena den, baliteke botoemaleak erlajatzea eta absentsentziora altuagoa izatea.

## FERMIN MENDIZABAL


*Gipuzkoako Merkatal Ganbarako burua eta Mayc-eko zuzendaria*



*"Bidean oztopak izango badira ere, bake prozesuak ez dauka atzera bueltarik"*

1. Su-etenaren berri Kolonbian izan

1. **ETAren su-etenaren ondoren, zeintzuk dira une honetan eman beharreko urratsak? Ze amaiera ikusten diozu bake prozesuari?**
2. **Su-etenak izango du eraginik urriaren 25eko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan? Zelako eragina?**



genuen, Aznar Espainiako gobernu-buruarekin eta estatu osoko hainbat enpresariorekin egindako bidaian eta bainik eta baita bertan geundenok, poz handiz jaso genuen berria. Bake prozesuak ez dauka atzera bueltarik. Hala ere, bidean oztopo ugari aurkituko ditugu: alde askotako jendea dago inbolukratuta prozesuan, besteak beste, Espainia, Frantzia eta Nafarroako gobernuak eta guztiak egin beharko dute lan bakearen alde, baita guk geuk ere dagokigun neurrian.

2. Su-etenak dela eta, urriaren 25eko Hauteskunde Autonomikoetan alderdi abertzaleen botoak gora egingo du.

## IÑAKI IBABE

*Preso izandakoa*



*"Su-etenaren denbora baterako da. Beste alde mugitu behar da orain"*

1. Lizarrako agiria sinatu zuten erakunde eta taldeen eskuetan eta herritarren eskuetan lagatzen du ETAk gatazkari irtenbidea aurkitzeko ardura. ETAk eman du lehenengo urratsa armak isilaraziz, baina su-etenak ez da betirako, denbora baterako baizik. Beste alde mugitu beharko da orain. Hasteko, legea betez: presoak Euskal Herrira ekarri eta zigorraren 3/4 beteta dituzten presoak askatuz. Ondoren, hitz egiten jarraitu beharko da. Oraingoz, ez diot prozesuari amaiera garbirik ikusten.

2. Su-etenak ilusioa piztu du jendearengan eta horrek eragina izan dezake hurrengo hauteskundeetan, baina ez dakit nola eragingo duen.


## IÑAZIO ARREGI

*Aranzadi Ikastolako zuzendaria*



*"Negoziatetan mahairatzen diren denek eman behar dute amore zerbaitetan"*

1. Ez dut amaiera garbi ikusten. Aurreikusi daitekeen negoziaketa honetan mahairatzen diren denek eman beharko dute amore zerbaitetan. Dena den, biolentziaren bidea agortuta dagoela



begibistakoa da: mendebaldean izan diren mugimendu armatu guztiak desagertuaz joan direlako, herri hau ez dagoelako prest iteerarik gabeko borroka bati etengabe eusteko, Ipar-Irlandako arazoari emandako irtenbidea eredu delako... Epe laburrera, estatuari dago-kio mugimenduren bat egitea. Lojikoena presoan arazoei irtenbideak ematea litzateke.

2. Batzuk diotenez herritarrek egin aukerak ez dira asko aldatuko hurrengo hauteskundeetan. Nahiago nuke hautesleek prozesu honetan benetan busti direnak sarituko balituzte, herri honek duen arazorik larrienetako bati irtenbidea ematen saiatu baitira.

### JUAN JOSE ALVAREZ

UNEDeko zuzendaria



1. Ireki berri den prozesu honetan urrats berriak ematea ezinbestekoa da. Politikoak ausartak izan behar dira eta zuhurtasunez baina beldur barik jokatu behar dute. Bake prozesuaren gakoa alde guztiek aldarrikatzen dutena publiko ez egitean egon daiteke. Bestalde, benetako politikoen ordua iritsi dela uste dut eta, legalismoak alde batera lagata, Konstituzioaren mugak gainditzeko formulak topatu beharko litzuzke. Konstituzioak ez du jasotzen autodeterminazio eskubidea, baina benetako borondatea izanez gero, formula berriak instrumentalizatu daitezke.

2. Su-etenak izango du eraginik dagoen hauteskundeetan eta abstentzioa txikiagoa izango da. Horrek indar politikoa abertzaleei eragingo die zuzenean

1. ETaren su-etenaren ondoren, zeintzuk dira une honetan eman beharreko urratsak? Ze amaiera ikusten diozu bake prozesuari?

2. Su-etenak izango du eraginik urriaren 25eko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan? Zelako eragina?

### ANDRES DIEZ

IU-EB




1. Hurrengo urratsa legea betearazi eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzeari izango litzateke. Bestalde, gizarte talde, sindikatu eta indar politiko guztiek, inor baztertu barik, elkarriketa prozesu bati ekin behar diote eta gizarte zibil osoa konprometitu. Halere, euskal gatazka konpontzeko ezinbesteko baldintza autodeterminazio eskubidea aitortu eta indarrean jartzea da.

2. Su-etenak ezkerreko indar progresiten arteko lankidentzarako atek zabaltzen ditu eta, zentzu honetan, Udal hauteskundeetan zerrenda bateratuak aurkeztea komeniko litzateke.

### XABIER DIAZ DE ZERIO

EA



1. Hemendik aurrera, Irlandako bake prozesua izan dezakegu eredu. Epe

laburrera, presoak Euskal Herrirantz gerturatu eta epe erdira amnistia osoa. Bake prozesua osoa izan dadin, Euskal Herriaren independentzia lortu beharko litzateke Herrien Europan, eta atek zabalik geratu beharko lirateke Nafarroa eta Ipar Euskal Herriarekin bat egiteko.

2. Indar politiko estatalistek ez dute euren diskurtsoa aldatuko hauteskundeetan aurretik, boto galera izan ez dezaten; abertzaleek, bestalde, ez dute aldaketa nabaririk izango; beharbada, HBk biolentziaren aurrean zuen jarreragatik botorik ematen ez zuen ezker abertzaleko jendearen aldetik jaso dezake botorik Euskal Herritarrok taldeak.

### JUAN CARLOS GOÑI.

San Martin ikastetxe zuzendaria



1. Su-etena azken urteotan Euskal Herrian izan dugun albisterik pozgari eta onena izan da. Gatazka ikuspuntu guztietatik aztertu beharko lukete indar politiko guztiek. Bakoitzak bere nahiak eta helburuak izango ditu, baina adostasun puntu minimo batzuetara heltzea komeniko litzateke. Horretarako, alde guztiek malgutasuna erakutsi beharko dute, bake prozesuak luze joko duelako. Ez da prozesu lineala izango, oztopoak izango baitira bidean, baina atze-

**GURIDI** altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

**Carmen Garate**

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak. Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

**SUBIJA**

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41






raezineko prozesua dela uste dut.

2. Su-etenaren ondoren, irtenbide posible bat somatzen da eta, horrek, ilusioa sortu du jendearengan. Horregatik, bestetan baino jende gehiagok hartuko du parte. Halere, mapa politikoa ez da asko aldatuko.

## SERAFIN ESNAOLA

Apaiza



*"Prozesu honek ez dauka bueltarik. Martxan dago eta poztekoa da hori"*

1. Ez dakit zeintzuk diren orain eman beharreko urratsak baina prozesu honek ez dauka bueltarik. Martxan dago eta poztekoa da hori. Orain ikusi behar politikoez eta hor dabilzanek nondik nora bideratzen duten. Pake prozesuari hasiera ona eman zaio eta bukaera ona izango duelakoan nago. Itxaropen handiak dauzkat pake prozesu honekin. ETak armak uztea azkeneko erabakia izan behar da, hori da lortu behar dena.

2. Etorbizunaren berri ez daukat eta ez dakit su-etenak zenbaterainoko eragina izango duen.

## MAITE ARISTEGI

EHNEko Idazkari Nagusia



*"Madrilgo gobernuak distentsiorako keinuak egin beharko ditu orain"*


1. Su-etenarekin batera bertakook biltzeko Lizarrako akordioa hain ga-

rantzitsua izan denez, talde sinatzaile guztiek, itun hori gizarteratu eta oraindik ez daudenak, bake prozesu eraikitzaile baten inguruan biltzeko ahaleginak egin behar ditugu, bake-prozesu hau bueltarik gabekoa izateko. Bestetik, Madrilgo gobernuak distentsiorako keinuak egin beharko ditu (hasteko presoen sakabanaketarekin bukatu eta beren eskubideak bermatu), hortik aurrera herri honen premiak bideratzeko aukerak zabalduz. Amaiera, herri honek, bere geroaz erabakitzeko aukera izanik, zer izan nahi dugun, Estatuarekiko harremanetan non kokatu nahi dugun erabakitzean etorriko litzateke.

2. Benetako bakea nahi duenak jaingo duela bereizten zeinek egiten duen herri honen alde eta zeinek ez.

## XABIER LARRAÑAGA

ELA



*"Su-etenaren iturburua Lizarran adostutako burujabetza printzipioa da"*

1. Su-etenaren iturburua Lizarrako akordioan hartutako burujabetza printzipioa da: Euskal Herria bere buruaz erabakitzeko gauza den sujetu politiko bezala onartzea. Hurrengo urratsa burujabetza horri dagozkion eskubide eta kompetentzia konkretuak lortzeko euskal gizarteak elkarlanerako dugun gaitasuna frogatzea da. Bidea ibiliaz egiten da. Biolentzia amaitutzat jotzen dut, baina euskal arazoaren amaieraz hitz egin behar badugu, hau marko juridiko eta politiko egokia, herriak berak ezarritako mugak baino izango ez dituen, lortzen dugunean gertatuko da.

2. Beharbada. Denbora luzea behar izaten duغو egoera berriez ohartzeko.

## XABIER ARREGI

JARRAiko kidea



*"Espainolak autodeterminazio eskubidea onartzera bultzatu behar ditugu"*

1. ETak su-etena iragarri baino askoz lehenago inongo irteerarik ez duen inobilismorik itxienean geldituta dauden nazionalista espainolak (PP eta PSOE), Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea eta lurralde batasuna onartzera bultzatu behar ditugu; honela lortuko bait da gatazka gaintzea.

2. Su-eten mugagabea Euskal Herriko panorama politikoan elementu berri gisa ikusiz, datozen baskongadetako hauteskundeetan eragina izango du. Baina arazoa horrenbeste urteetako gatazka eragiten ari den arazoak gaintzean datza (Euskal Herriaren eskubideen ukoa). Beraz, ETak su-etena iragarri egin duen apostu serioari, subiranotasunaren aldeko urratsak jarraitu beharko diote, eta epe motzeko perspektiba elektoralak alboratu gatazka behin betikoz gaintu nahi bada.

## MIKEL LETE

EAJko kidea



*"Prozesuan parte hartuko dutenen aukeraketa egokia erabakiorra izango da"*

1. Inplikaturik dauden guztien arteko hizketaldi batzuk beharrezkoak dira, aurre baldintzarik jartzeke, distentsio bat sortzeko. Irlandako kasuan be-

**BERGARA**  
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimakerak

Urarte 8 BERGARA  
☎ 943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77

**AZPEITXI**

**Jatetxea**


Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

**Gallastegi**

**Jostundegia**

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85



zala, hasieran elkarrizketa multilateralak izan daitezke eta, pausoz pauso, ikuspegi kontrajarriak hurbiltzen joan, prozesu luzea eta oztopoz betea izango baita. Prozesu honetan parte hartuko duten pertsonen aukeraketa egokia ere erabakiorra izango da. Honek atzerapausorik ez dauka, jendea ilusio batekin dago eta lehengora bueltatzea ez luke onartuko. Bukaera izan behar da guk euskal herritarrok nahi duguna.

2. Lehengo estratejia PPri ondo zertorkion eta oraingo egoera alderdi abertzaleen onerako dela uste dut.

### ALEX BARRUSO

Elkarri



1. Su-etenaren ondoren, distentsio maila altua lortu eta kanpoan geratu direnak bake-prozesuan sartzea dira orain eman beharreko urratsak, bestela ezinezkoa izango baita aurrera egitea. Derrigorrezkoa zaie PP eta PSOEri bake prozesuan sartzea eta, nahiz eta hauteskundeak pasatu bitartean mugimendu handirik ez egon, pauso hori eman beharko dute lehentxeago edo geroxeago. Prozesu konplikatu eta delikatu izango da baina bake justoa lortuko delakoan nago. Prozesuaren amaieran, euskal herritarrok askatasunean eta demokratikoki hartutako erabakiak onartu egingo direla uste dut nik.

2. Gizarteak jakingo du bake prozesuan inplikatu direnak eskertzen. Beraz, alderdi abertzaleak eta Ezker Batua hauteskundeetan sarrituta izango direla uste dut.

### JUAN JOSE AZKARATE

Ezker Sindikala



1. Estatu espainolak behingoz euskaldunon autodeterminazio eskubidea onartu behar du. Konstituzioa aldatu eta presoak euskal herriratu eta etxeratzeari aurrerapausu nabaria izango litzateke. PSOEek eta PPK ez badute bake prozesuan parte hartzerik nahi, euskal herritar guztiok hitzetatik ekintzetara pasatu beharko gara mobilizazioekin. Bestela bake prozesua arriskuan egongo da eta epe motzera ez bada, epe erdira prozesuaren amaiera etor daiteke.

2. Polarizazio handia egongo dela uste dut eta, beraz, abstentzioa gutxitu egingo dela espero daiteke. Su-etenaren alde dauden indar politikoek boto gehiago jaso ditzakete.

### ANTONIO HERZOG

Bergararrak bakearen alde



1. Su-etenaren ondoren, alderdi guztiak ETArekin ofertaren inguruan lanean hasi behar direla uste dut. PPK eta PSOEek ere pauso hori eman behar dute, lehenbizi borroka armatuaren amaiera lortzeko. Gero izango da abertzaleen inguruan eztabaidatzeko aukera. Negoziazioak ondo bidera-

tu eta alderdien interesak bigarren plano batean lagatzen badira, bake prozesua ondo amaituko dela uste dut. Prozesu luzea izango da, Irlandan gertatu izan den moduan eta baliteke erronka hau onartzen ez duen jendea ere egotea. Lehendabiziko helburua borroka armatuarekin amaitzea litzateke. Gero gizarteak erabaki behar du zer nahi duen.

2. Ez dut uste eraginik edukiko duenik. Euskal Herrian botoa, onerako edo txarrerako, nahiko atomizatu dago. Dena den, abstentzioa beste batzutan baino baxuagoa izan daiteke eta alderdiaren bat ekar dezake horrek.

### JOSE LUIS GARITANO

ADEGI



1. Testuinguru honetan, su-etenaz gain, Lizarrako akordioa, alderdi politiko ezberdinen adierazpenak edota nazioartean gai honek duen oihartzuna kontutan hartzekoak dira. Gure herriarentzat aukera ikusgarriak izango dituen estratejia iraunkor bat planteatu behar da. Itxaropena, lanerako gaitasuna eta berezkoa zaigun umorea galtzen ez badugu, epe erdi-luzera ongizate eta giza modeloaren erreferentzia izango gar. Prozesu honek herritarren partaidetza, instituzioen prest egote hobea edota lana suposatuz dezake.

2. Berehalako efektuak emateko, urriaren 25a gertakari hauetatik gertuegi dago. Dena den, hauteskundeetan bestetan baino partaidetza handiagoa eman daiteke. Hala ere, ez dut uste emaitzak asko aldatuko direnik. Hori

**IGARO**

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27



**GAZTELU**


**BURDINAKI DENDA**

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



**BOKATEGIA**

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19



bai, Gasteizko gobernuan HB-EHren paperak aldaketak izan ditzake hemen-dik aurrera. Ondorio garrantzitsuak epe erdi-luzera ikusiko da zeintzuk diren.

**JABIER RETEGI**

*Industria sailburua*



*"Adiskidetzako garaiari ekin eta bakearen espiralean murgiltzea dagokigu"*

1. ETak iragarritako su-etena garrantzi handiko gertakaria da, baldin eta, uste dugun moduan, borroka armatua lagatzeko borondatea suposatzen badu. Orain gizarte osoari, adiskidetzako garaiari ekin eta bakearen espiral batean murgiltzea dagokigu.

2. Nik uste dut botorik ematen ez zuten herritarrak animatu daitezkeela oraingoan hauteskundeetan parte hartera eta hori positiboa da.

**JABIER ZENDOIA**

*PSE-EE*



*"Puntu honetara iritsi ondoren, bakea errealitate bihurtzea falta da orain"*

1. Gure alderdia beti egon da elkarriketarako prest baina momentu honetan uste dut PPK hartu behar duela prozesuaren erantzunkizuna. Flexibilitate piskat erakutsi beharko luke eta presoek euskal herriratzea abiapuntu bat izan daiteke. Lizarrakoa nik uste dut EAJk eta HBk manipulatu egin du-

**1. ETaren su-etenaren ondoren, zeintzuk dira une honetan eman beharreko urratsak? Ze amaiera ikusten diozu bake prozesuari?**


**2. Su-etenak izango du eraginik urriaren 25eko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan? Zelako eragina?**

tela eta guk ez dugu parte hartu HBren negoziatzerik ez genuelako nahi. Ajuria Eneako Mahaian bakarrik laga gintuzten eta hortik aurrera gobernutik irten eta ez dugu HBren eta EAJren joko jarraitu nahi izan. Ikusi behar orain alderdi demokratik eta ETaren ingurukoak konpontzen diren. Interesgarria da puntu honetara iristea baina bakea errealitate bihurtzea falta da orain. Ez dugu txantajerik onartuko; gauzak serio eta borondate onez hartzen badira, ETak borroka armatua laga eta demokratik adostasun batera iritsi gaitzake.

2. Ez dut uste mapa elektoralean aldaketa handirik egongo denik. PSE-EEren kasuan urriaren 25ean gure jarraitzaileen botoak jasotzea espero dugu.

**JOSE LUIS ELKORO**

*HBko Mahai Nazionaleko kide obia*



*"ETak emandako pausuk Euskadiren subiranotasunera eramango gaitu"*

1. ETak iragarritako su-etenaren ondoren, alderdi guztien arteko elkarriketen hasiera beharrezkoa ikusten dut ETarekin negoziatzen hasteko. ETak eman duen pausua atzeraezina da eta Euskadiren subiranotasuna lortzea eramango gaitu.

2. Su-etenak giro baikorra ekarri du atzetik eta uste dut abertzaleen partaidetzak gora egingo duela. Beraz, emai-

tzak positiboak izango dira orokorrean euskaldun guztion asmoak betetzeko.

**ENEKO OREGI**

*Hezkuntza sailburuordea*



*"Euskal gizarteak markatuko du bake prozesuaren amaiera. Bakea iritsiko da"*

1. Bake prozesuaren hastapenetan baino ez gaude oraindik eta kostako da euskal alderdi eta sektore guztiengandik bake prozesuaren markoa, azpifaseak, edukia eta prozedura adostea. Denon artean topatu beharko diegu askabidea bide luze honetan aurkituko ditugun korapiloak. Lizarrako alderdien arteko estrategia amankomuna lantzea, esparru hori hedatzea eta alderdi espainiarrekini zubiak eraiki eta sendotzea dira oraingo eginkizun nagusiak. ETAko presoekiko distentsio-neurriak ere beharrezkoak dira. Bake prozesua abiatzen denean, amaiera batera iritsi behar du. Euskal gizarteak markatuko du amaiera hori eta ez dakigu oraindik zein eduki izango duen bakeak baina iritsi, iritsiko da.

2. Garrantzitsua da bakebidea indartuta gertatzea, bakebidearen alde apostu sendoa egin duten alderdiak hauteskundeetan babestuz. Halere, bakegintza denon artean eta guztion ikuspegi, tradizio eta iritziak kontutan hartuz egin beharko da. B

**REMENTERIA**

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29



**Matxiategi**  
**Elektragintza**  
**C.B.**

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

**ELEKTRIZITATE**  
**MATERIALEN**  
**SALMENTA ETA**  
**INSTALAKUNTZA**

*Kabutzia*

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN KANPOAN

09:30: Amilox-Xurrupek	<b>Agirrebeña</b>
10:30: Agirrebeña-Patxaran Team	<b>Mo(ko)lotov</b>
11:30: Ari Ari-Mo(ko)lotov	<b>Bayer</b>
12:30: Bayer-Matxakategi	<b>Ari Ari</b>
16:00: Autos Ion-Etengabe	<b>OH Zerezos</b>
17:00: Jauja OH Zerezos-A Ze Flaxa	<b>Shaktale</b>
18:00: Shaktale-Azpeitxi jatetxea	<b>Pagomendi</b>
19:00: Pagomendi-Ortzi	<b>Azpeitxi</b>

### DOMEKAN BARRUAN

16:00: Igandekoak-Ezinleike	<b>Eri Sirimiri</b>
17:00: Eri Sirimiri-Zubixaurre Punk	<b>Irubide</b>
18:00: Irubide jatetxea-FAC	<b>Usoa</b>
19:00: Usoa Komando Piperrak	<b>Artusamak</b>
20:00: Artusamak-La Juve	<b>Komando P.</b>

### DOMEKAN KANPOAN

09:00: Txipiron-Urrutxurtu	<b>Buya</b>
10:00: Buya-Pinturas Bergara	<b>Uve Bikoitza</b>
11:00: Uve Bikoitza-Arbe Kirolak	<b>Moskis</b>
12:00: Moskis-Amozkibar	<b>HHH</b>
13:00: HHH-Guadalest	<b>Amozkibar</b>
16:00: Agiñaspi-Ufala	<b>T.C. Argandolas</b>
17:00: Tom Cat Argandolas-Patatus	<b>Errotagain</b>
18:00: Mongatxurak-Errotagain	<b>Bildurbarek</b>
19:00: Bildurbarek Opel/Lam-Gozoak	<b>Mongatxurak</b>

## argi!

### Arau berriak txapelketan

Antolaketa Batzordeak, arau batzuk aldatu dituela eta, taldeei arau hauek irakurtzea eskatzen die. Hauek dira batzuk: zati bakoitzean bost falta egin eta gero, penalti bikoitza jaurtiko da; txartel horiak jokalaria 3 minuturako kalera bidaliko du; eta txartel urdinak, partidu guztirako baina bere ordeze beste jokalaririk batek jokatzeko aukera izango du.

## jokoz kanpo



**Paco Cambronel**  
PATATUS

**G.** Joan zen txapelketako talde bera mantendu duzue?

**E.** Bai baina, zorionez, denboraldi honetan jokalaririk gehiago bildu gara. Azkenaldian gutxi etortzen ginen partiduak jokatzerara igandetan Anotara joaten zen jende asko zegoelako.

**G.** Taldeen banaketa egiteko aukeratu den sistemarekin ados?

**E.** Bai. Taldeek alde handia dute beraien artean eta beharrezkoa da. Gu, esaterako, laugarren mailako azkenak izan ginen. Gustorago jokatzen dugu gure antzera dabilzanekin.

**G.** Zer egin zenuten joan zen astean lehendabiziko partiduan.

**E.** Agiñaspiren kontra launa berdindu genuen. Iazko txapelketan gu laugarren mailan eta beraiek lehendabizikoan zeudela kontutan hartuz, nahiko ondo hasi dugu txapelketa.

**G.** Clemente ala Camacho.

**E.** Clemente. Kazetariak pasatu egin dira Clementerekin.

**G.** Zein postutan jokatzen duzu?

**E.** Defentsan.

**G.** Zenbat urte dagoeneko txapelketan ari zaretela?

**E.** Hasieratik gaude. Igandeetan zerbait egitearren hasi ginen.

**G.** Zein talderen jarraitzailea zara?

**E.** Realekoa.

## gora eta behera



### Gol ugari aurreneko jardunaldian

Gol ugari ikusi dira txapelketako lehendabiziko jardunaldian. Bayer taldea izan zen gol kopuru gehien sartzea lortu zuena. 10 gol sartu zizkion Zubixaurre Punk taldeari. Txipiron ere gertu ibili zen: 9 gol sartzea lortu zuen Etengabe taldearen kontrako partiduan.



### Manitoux txapelketa laga du

Azpeitxi Jatetxearen eta Manitouren arteko partidua balio gabe gelditu da, Azpeitxi Jatetxeak 7-2 irabaztea lortu bazuen ere. Manitoux txapelketatik alde egin du Donostiako beste txapelketa batean aritzeko.

### Lehendabiziko zigorra

Txapelketa hasi berria da baina, zenbaitek ez ditu ohitura zatarrak ahaztu: jokalaririk bat zigortua izan da epailea iraintzeagatik.

## emaitzak

A Ze Flaxa Etxagi-Pagomendi	3-3
Gozoak-Jauja OH Zerezos	2-4
Ortzi-Bildurbarek Opel/Lam	3-5
Errotagain-Shaktale	1-1
FAC-SLP	4-0
Komando Piperrak-Iru Bide Jatetxeat	4-2
Urrutxurtu-Usoa	6-2
Etengabe-Txipiron	1-9
Pinturas Bergara-Tom Cat Argandolas	5-5
Arbe Kirolak-Buya	5-1
Amozkibar-Uve Bikoitza	3-7
Ufala-HHH	3-5
Patatus-Agiñaspi	4-4
Jakina Patxaran Team- Eri Sirimiri	1-2
Xurrupek-Agirrebeña Jatetxea	6-2
Ezinleikei-Amilox	7-4
Ixoane-Igandekoak	8-1
Ganbara Ari Ari-Matxakategi	2-1
Zubixaurre Punk-Bayer	1-10

Aprobetxatu oporrak  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Izena ematean  
**%10EKO BEHERAPENA**  
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

# Nazioarte mailako jokalariai Xake asteen

**Joan zen zapatuan** hasi eta gaur arte hainbat xake jardunaldi eta txapelketa jokatu dira. Zapatuan, 14 eta 18 urtez beherakoentzako jubenil eta unibertsitate mailako Xake Eskolaren Jaialdia izan zen Miguel Altuna Institutuan. 14 urtetik beherakoen txapelketan, Bergarako lehena, 12 urteko Iraitz Artola izan zen, 4 punturekin eta 21. postua lortuz. Bigarrena, 10 urteko Mikel Blazquez, 3 puntuz, 31. postuan sailkatu zen. Hamazortzi urtez beherakoen taldean, ez zen bergararik izan. Irabazlea, Diego Sarralde durangarra izan zen 5,5 punturekin.

Domekan, Nazioarteko Xake Torneo Irekia jokatu zen. Mundu osoko xake jokalariai inguratu ziren eta hauen artean, nazioarte mailako hamabost maixu eta kadete mailan munduko txapeldun ordea den Laurent Frexinet frantziarra izan



Miguel Altuna institutuan jokatu zen txapelketako une bat.

ziren. Errusia, Frantzia, Chile, Peru, Argentina eta Europako beste hainbat herrialdetako jokalariai izan genituen herrian. Txapelketa irekian parte hartu zuten 36 euskaldunek ezin izan zioten Alexander Panchenco Errusiarraren esperientziari aurre egin. Azken honek, lehen postua eskuratu zuen 6 punturekin. Dena dela, euskaldunek lan polita egin zutela esan behar da. Le-

hendabizikoa Felix Izeta izan zen, 5,5 punturekin, 5. postua lortuz.

Martitzenean, aldibereko xake jokaldia izan ziren, eguaztenean Bergarako Eskolarteko Xake Txapelketa eta eguenean xakeari buruzko pintura, marrazki, komiki eta ipuinen eskolarteko lehiaketa. Eguakitzean Blitzecko Match lehiaketa jokatu da 19:00etan xake taldearen egoitzan. B

## Zabaletak errekorra Las Palmasen

**Laugarren** urtez, Aitor Zabaleta pilotoak Las Palmas desertuko XXVII. Igoera irabazi zuen joan zen astebukaeran. Aitorrek, bi segundutako abantaila atera zion bere Lola-BMW barketa berriarekin bigarren postuan sailkatu zen Andres Vilariñori. Azken proba hau, Espainiako txapelketarako puntugarria izan da. Lasterketa irabazteaz gain, 1993. urtetik, Pantxo Egozkue pilotoak zuen errekorra hobetu zuen birritan. Bestalde, Zabaletak bado pozik egoteko beste arrazoi bat, aste honetan, aita izan baita. Zorionak! Aitorren erronka berria, Asturiasen izango da urriaren 4an. Espainiako txapelketa irabaztea nahi izanez gero iguera honetan garaipena lortzea komeni zaio.

## BERGARAREN LAN BIKAINA KROSS HERRIKOIAN

**Bergarako Atletiko Zaleak** elkarteak Udal Kirol zerbitzuaren laguntzaz zapatuan antolatu zuen kross herrikoian, Bergarako 50 korrikalari baino gehiago aritu ziren. Gainontzeko partaideak, Azpeitia, Billabona, Oñati, Albistur, Arrasate, Bidegoian, Zumarraga, Antzuola, Durango, Tolosa eta Donostiatik gerturatu ziren.

### IRABAZLEAK

Alebin mutilak; Yera Varela (Oñati)  
Alebin neskak; Marina Madariaga (Bergara)  
Benjamin mutilak; Asier Crespo (Bergara)  
Infantil mutilak; Jon Galarraga (Bidegoien)  
Infantil neskak; Maitane Jauregi (Albistur)  
Junior mailako mutilak; Fernando Nogales (Arrasate)  
Junior mailako neskak; Sara Rodriguez (Azpeitia)  
Senior mailako mutilak; Manu Hurtado (Azpeitia)  
Gizonetako beteranoak; Aitor Egaña (Bergara)  
Emakumetako beteranoak; M<sup>a</sup> Carmen Garcia (Arrasate)



## San Martin ziklismo saria

**XXXIII.** San Martin Saria azken uneko sprintean erabaki zen. Jon Del Riok jaso zuen saria, 2.51.24" tako denborarekin. Bergarako ordezkari bakarra Jon Unamuno izan zen. Antolatzaileek azaldu dutenez, ez zen arazorik izan, Eibarko txirrindulari batek izan zuen istripu txiki batez gain. Lasterketa honekin, datorren urteko martxorarte, Lokatza taldeak bukaera eman dio denboraldiari.

# Alex Familiarrek zuzenduko du saskibaloia talde nagusia

## Bolsos Bergarak eta jubenilek hasiko dute denboraldia



Bolsos Bergara taldeko nobedadeak jubeniletatik igotako 4 jokalarirekin eta Elgoibarreko 2 izango dira.

**Astebukaera honetan emango diote hasiera denboraldiari BKEko saskibaloia talde nagusiak eta jubenilak. Joan zen astean hiru talde Arrasateren kontrako lagunarteko partidua jokatu zituzten. Talde nagusiak 66-75 galdu zuen; jubenil taldeak 76-45 irabazi egin zuen eta kadete mailakoak ere 80-45 nagusitu ziren. Gai nontzeko taldeak entrenatzen hasi diren arren, urriaren erdialderaino itxaron beharko dute lehendabiziko norgehiagoka jokatzeko eta, beraz, denboraldia hasteko.**

Joan zen urteko taldeez gain, kadete mailan arituko den nesken talde berria izango da aurten. Bestalde, talde nagusiak entrenatzaile aldatu du. Ramon Condek taldea utzi eta Alex Familiar arituko da zuzendari lanetan. Taldea osatzeko, jubenil mailan aritutako jokalarirekin batzuk nagusien artean ikusiko ditugu.

**Lizarraren kontrako partidua, zapatuan, zaila izango da Bergararentzat**

### Helburu nagusia, mailari eustea

Ramon Conde entrenatzaileak eta Bolsos Bergara taldeak lan polita egin zuten joan zen denboraldian, lehen maila autonomikoan lehendabiziko aldiz aritu zirela eta gainontzeko taldeak ezagutzen ez zituztela kontutan izaten badugu. Helburua, maila mantentzea izan bazen ere, igotzeko aukera izan zuten. Lau izan dira taldea utzi duten jokalariek eta berriak, oster, sei. Elgoibarreko bi jokalarirekin eta, gainontzekoak, jubenil mailatik igotzen direnak. Alex Familiar jubenil maila entrenatzen izan zen iaz eta orain, erronka

berria izango du talde nagusiarekin. Berak esan digunez, "helburu nagusia, joan den denboraldian bezala, mailari eustea izango da, horixe da garrantzitsua. Izugarri poztuko nintzateke horrela gertatuko balitz. Astebukaera honetan Lizarrako Ega Pan taldearen kontrako gara. Bigarren mailatik jaitsi berri dira eta jaso dudaren informazioaren arabera, oso talde indartsua da. Zorte txarra izan dugu aurreneko partidua honetan. Jokalarirekin batek taldea utzi behar izan du eta beste batzuk lesionaturik daude. Ez gara guztiak izango eta, esan bezala, Lizarrakoa oso indartsua da. Dena dela, ga-

raipena lortuko dugu". Bol-sos Bergara taldeak Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Errioxan jokatu beharko ditu partiduak.

### Lau jokalaria talde nagusira

Oso denboraldi ona egin zuten iaz jubenil mailan Alex Familiarren mutilek. Lehen maila probintzian, hirugarren postuan sailkatu ziren. "Bikain aritu zirela iruditu zitzaidan. Hori dela eta, jubenil mailako lau jokalaria talde nagusian arituko dira aurten. Arazo bakarra zera izan zen, jokalaria ez zirela oso altuak. Ondorioz, beste atal batzuk joratu behar izan genituen nola baiteko oreka lortzeko. Jubenil taldea oso garrantzitsua da. Beraiek dira hurrengo denboraldian talde

nagusian ibili behar direnak eta hutsuneak bete behar dituztenak". Aurreko lanari jarraituz, jubenilak maila eusteko asmoz ekingo diote. Entrenatzailea, Iñigo Martin izango da.

### Hamargarren postutik igotzeko prest

Bigarren urtea izango da neskenentzat bigarren maila probintzian. Aurten, dagoeneko, taldeak ezagutzen dituzte eta aurrekoan lortu-

## Aurten talde bat gehiago izango du BKEk: nesken kadete maila

tako hamargarren postua hobetzeari ekingo diote du-darik gabe. Hori guztia bideratu eta lanaz arduratuko direnak, Juan Pedro Rajado eta David Urbina izango dira. Senior mailan nesken taldea ateratzeko asmoa ere badago. Dena dela, aurten lortzen dituzten emaitzen arabera izango da.

### Kadete mutilak

Jokalaria guztientzat lehendabiziko urtea izan zen saskibaloia taldean, eta emaitza eskasak lortu ziren. Entrenatzaileak ere aurreko aldiz izan ziren talde bat zuzentzen eta, beraz, esperientzia gutxi zeukaten. Zortzigarren sailkatu ziren. Aurtengo egoera ezberdina da. Entrenatzaileek jokalaria ezagutzen dituzte eta urte

osoan jokatzen ibili direnez, emaitzak hobetzeko aukera handia dute. Neskek bezala, 2. maila probintzian jardungo dira. Entrenatzaileak aurreko denboraldian taldea zuzendu zuten berak dira, Angel Ortiz eta David Bouzas hain zuzen.

### Kadete mailako neskak

Bergara Kirol Elkarte saskibaloian sortu den talde berria dugu honako hau. 10 eta 12 urte bitarteko hamar neskek osatzen dute taldea eta Juan Pedro Rajado eta David Urbina, jubenil nesken ardura duten entrenatzaile berak izango dira taldea zuzenduko dutenak. Ez zaie lanik faltako bi entrenatzaile hauei. Bi talde zuzentzea ez baita erreza izango. B



Kadete mailako mutilak.



Kadete mailako neskak.



Jubenil mailako neskak.



Jubenil mailako mutilak.

**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Pisu amueblatua salgai Antzuolan. Deitu 943 76 60 41 telefonora.

Barrenkalean apartamentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. Deitu 943 76 49 74 telefonora.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Pisua salgai Martokon. la amueblatuta. 943 76 34 20/37 99.

Pisua salgai Añanerren. 943 76 52 17.

**Errentan hartzeko**

Urritik aurrera pisua alokatuko genuke. 945 45 52 09 (Vanesa).

Pisua alokatu nahi du. 943 76 21 48 (Felix).

Pisua alokatu nahi dut. Urjentea. 943 76 72 45 (Carmen).

Pisua alokatu nahi dut. Deitu 943 76 30 57 telefonora.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. AUTOAK/MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

**Saldu**

Lokala salgai A. Fleming. 943 76 00 84 / 76 35 83.

Bi solairuko txabola salgai, ortuarekin. Prezio interesgarria. 943 76 07 87.

**Erosi**

5.000 m2ko lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. 943 76 70 24.

**4. LANA**

**Eskaintzak**

Edadetuak zaindu edo etxeko garbiketarak egin-go nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zaintzen ditu. 943 76 64 47.

Haurrak zainduko nituzke. 943 76 01 84.

Neska batek, goizez, etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 46 07.

Neska eskaintzen da atariak edo etxeak garbitzeko. 919 52 98 04.

**Etxe konpartituak**

Neska behar da Donostian pisua osatzeko. 943 71 49 46.

Bergaran pisua osatzeko lagun bat behar da. 943 76 47 55.

Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio) pisua osatzeko. 943 77 13 77.

Donostian (Amaran) bi lagun behar ditugu pisua konpartitzeko. Deitu 943 79 27 42 telefonora.

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 24 57.

Boni Laskurain. 943 76 17 84.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

**Errentan emateko**

Garajea alokairuan

Bolun. 943 76 55 26.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 943 76 56 91 telefonora.

Garajea alokairuan Poligonon. 943 76 32 58.

**Errentan hartzeko**

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. Deitu 943 76 47 50 (Jabi) telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

## ARDATZA

*Brikolaketa*

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behe  
☎ 943 76 18 93



**AGENTEA-DELEGATUA**

*Iraegi Aseguruak*

Ramon Maria Lili 6, behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxe: 943 76 41 54  
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00



## EDEL TAPIZDENDA

*Etxerako artikuluetau aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**



Etxeko lanak orduka egingo nituzke. 943 76 57 59 (Julia).

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Espenientzia. 943 76 03 76 (Maite).

Neska batek edadetuak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 09 33.

Neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. 943 76 57 55.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut (testuak zein grafikoak). 943 76 61 24.

#### Eskaerak

Antzuolan neska bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko (urritik aurrera). 943 78 71 06.

Emakume bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 943 76 48 27.

Umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska bat behar da. 943 76 31 11.

Neska edo andra euskalduna behar da egun osoan etxean lan egiteko. 943 76 13 23.

#### 5. IRAKASKUNTZA

##### Eskaintzak

Frantseseko klaseak. 943 76 39 68.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

Filologia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Majisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOKo klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

Enpresaritzako klaseak. 943 76 05 43.

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

#### 6. AUTOAK/MOTOAK

##### Saldu

Renault-9 kotxea (SS-V) salgai. Prezio interesgarria. 943 76 25 31.

Rover 216 (NA-W). 943 72 63 47 (Angel).

Alfa Romeo 33 1700 i (SS-AK). Aire egokitua. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Remolkea salgai. 1,10x1 m. Poliesterrezko tapa, ia berria. 943 76 37 87.

Kotxea (SS-V) salgai. 943 76 36 74.

#### 7. ANIMALIAK

##### Saldu

Cooker ingeles txakurra. 943 76 72 45.

##### Bestelakoak

Katuak oparitzen ditut. 943 76 57 67.

#### 8. DENETARIK

##### Saldu

Calloy mendiko bizikleta. 943 78 70 58.

Bainurako manpara, 1,55 m. 943 76 64 65.

Lur entziklopedia salgai. 943 76 02 79.

Bizikleta estatikoa salgai. Ia berria. 10.000 pezeta. 943 76 07 88.

Hozkailua erosiko nuke. 943 76 50 58 (Maritere).

##### Erosi

Binilo txikiak eta handiak erosten ditut. 943 52 65 77.

##### Galdu

San Martin bezperan urrezko belarririkoa galdu nuen. 943 76 00 66.

Katea galdu zait. Deitu 943 77 91 16 telefonora.

##### Aurkitu

Bi hilabete inguruko "azul-ruso" katu bat topatu dugu Osinen. 943 76 27 97.



# Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**AIRE GIROTUAREN INSTALATZAILE-KONPONTZAILEA**  
Donostia. 12104/3

**ESTANPATZAILEA**  
Arabako Lautada. 12330/3

**SUKALDARIA**  
Araba. 12321/4

**PRAGRAMATZAILEA**  
Bilbo. 12375/2

**ILEAPAINATZAILEA**  
Bilbo. 12280/3

**AROTZA**  
Bilbo. 12319/3

**MEKANIKARI-ELEKTRIZISTA**  
Gernika. 12587/2

**PRAGRAMATZAILEA**  
Ibaizabal. 12667/4

**SUKALDARIA**  
Madril. 12271/3

**KALITATE KONTROLEKO TEKNIKARIA**  
Deba Garaia. 12176/1

**INFORMATIKA IRAKASLEA**  
Deba Garaia. 12153/5

**ADMINISTRARIA**  
Tolosa. 12259/1

**INFORMAZIORAKO 2 AZAFATA**  
Urola Kosta. 12305/4

**PRAGRAMATZAILEA**  
Bilbo. 12399/2

**KAMIOIEN MEKANIKAKO AJUSTATZAILEA**  
Ezker aldea. 12118/2

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

## 98-99 IKASTURTEA

# INGELES FRANTSESA ALEMANA

## MATRIKULA ZABALIK

### Ikasturtearen hasiera: urriaren 1ean.

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...
- **UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROAK (6 URTETIK AURRERA).**

- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.



INFORMAZIOA: Bergarako UNED. San Martin plaza z/g (3. pisua) ☎ 943 76 06 87. Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30

# Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldiak aurkeztu ziren Udaletxean

Datorren iraila bitartean musika emanaldiak, erakusketak, diskoa, liburua...

**Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrena ospatzeko ikasturte honetan antolatuko diren ekitaldiak aurkeztu ziren joan zen eguakitzean Udaletxeko Pleno Aretoan.**

Aurkezpen ekitaldian, Mila Andueza Orfeoiko presidentearekin eta David Azurza zuzendariarekin batera, Victoriano Gallastegi alkatea, Juan Jose Hernandez Orfeoiko presidente ohia eta Ricardo Azkargorta 75. urteurrenaren kartelaren egilea izan ziren. Bestalde, Orfeoia lau pieza eskaini zituen. Pleno Aretoa toperaino bete zen ospakizunen hasierako ekitaldian.

Mila Anduezak, Orfeoiaren ospakizunetan parte hartzera gonbidatu zituen herritarrak; Juan Jose Hernandez, orfeoikide diren eta izan diren guztien lana aitortu zuen eta Victoriano Gallastegi alkateak, Orfeoia zoriondu zuen.

Ricardo Azkargortak, okasiorako egin duen kartela erakutsi zuen. Kolore laranja eta gorriak erabili ditu eta, erdialdean, zuriz margotutako aho-kordak, abeslarien musika instrumentuaren sinbolo bezala.

## Egitarau zabala

Orfeoia Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan hartuko du parte urriaren 24an. Santa Zezilia egunean, azaroaren 22an, bestalde, Bergarako haurrei eskainitako kontzertu pedagogikoa emango du arratsaldean Udal Pilotalekuan eta, gauean, orfeoikide izandako guztiei omenaldia eskainiko



Joan zen eguakitzean aurkeztu ziren Orfeoiaren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldiak.

die, toki berean, "Opus III Percussion Ensemble" taldearekin batera, emango duen kontzertuan. Abenduaren 19an, ohizko Gabonetako kontzertuan hartuko du parte, herriko beste musika taldeekin batera. 1999an, Errenteriako "Musikaste" jaialdian hartuko du parte maiatzean eta, udaberrian, "Oliver!" musika-antzerki ikuskizuna aurkeztuko du. Datorren urteko irailean, azkenik, 75. urteurrenari amaiera emateko, kontzertua eskainiko du San Pedro elizan.

## Liburua, diskoa eta erakusketa

Musika emanaldiez gain, disko konpakto bat argitaratuko da aurtengo aza-

roan; umeentzako plastika lehiaketa antolatuko da abenduan eta Orfeoiaren historiari buruzko liburua aurkeztuko eta erakusketa antolatuko da Udaletxedorren urteko maiatzean.

## Orfeoia eskainitako erakusketa

Bestalde, Bergarako Seilu eta Bildumazaleen elkarteak Orfeoia eskainitako erakusketa zabalduko du bihar, zapatua, Kultur Etxean. Herriko bildumazaleek antolatzen duten XXVII. erakusketa da hau eta, bertan, posta zuzendaritzak baimendutako zigilu berezia izango da, zapatu eta domekan indarrean izango dena. B

**ONENA**  
**TINTATEGIA**  
Barrenkalea 29 BERGARA

**Sugoi**  
ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...  
Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOKIA  
**GOXO-TOKI**  
Iraila 3. Tf. 943 76 12 35  
Martzotegi 24. Tf. 943 76 03 37  
BERGARA

**A  
R  
R  
A  
N  
O**  
  
**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA


# Soinu eta pandero ikastaroa abian Jardunekin

Urritik aurrera 70 bat lagun arituko dira trikitixa ikasten Kartzela Zaharrean

**Urriaren 5ean hasiko dira Jarduneko soinu eta pandero ikastaroak Kartzela Zaharrean. Aurtengoa bosgarren ikasturtea izango da. 70-80 bat neska-mutiko arituko dira bertan.**

Ikasturtea urriaren 5ean, astelehena, hasiko da eta ekainera bitartean irarungo du. Iaz 39na lagun aritu ziren soinua zein poanderoa ikasten, ia 80 lagun guztira eta, aurrean ere, kopuru horren inguruan ibiliko dira. Dagoeneko 32 lagunek eman dute izena soinua ikasteko eta beste 35 lagunek panderoa ikasteko, baina oraindik tokia badago eta norbaitek interesa baldin badu Kartzela Zaharrean (943 76 08 19) jaso dezake informazio gehiago. Kuotak honako hauek dira: soinua, 2.650 PTA hileko; panderoa, berriz, 1.900 PTA.

Ikastaroak klase orduetatik kanpo izaten dira, astean zehar arratsaldeetan eta baita zapatu goizetan ere. Soinua bakarka ikasten dute eta panderoa, oster, taldeka.



Jarduneko soinujoleak, kalejira batean.

Normalean 9-12 urte bitarteko neska-mutikoak aritzen dira, baina helduei ere eskaintzen zaie trikitixa ikasteko aukera eta banaka batzuk eman dute izena. Aurtengo irakasleak honako

hauek izango dira: Iosu Zeziaga, Aitziber Gezalaga eta Maixa Lizarribar. Lehenengoak soinua erakutsiko du eta beste biek panderoa. Hirurak oso eza-gunak dira gure artean; Iosu Zeziaga eskola martxan jarri zenetik, hasierahasieratik, dabil erakusten. Ospetsuena, berriz, Maixa Lizarribar, Maixa eta Itziar bikotekoa da. Aitziber Gezalaga, oster, bere anaiarekin aritzen da plazarik-plaza. "Orain arte panderoa erakusten jardun duen Maider Osa Arrasate Telebistara joan da eta bere ordezkorak topatu behar izan ditugu. Horrela, bada, Maixa Lizarribar eta Aitziber Gezalaga antzuolarrarekin harremanetan jarri gara eta klaseak emateko prest azaldu dira" esan digu Eba Alberdik, Jarduneko Trikiti Eskolako arduradunak.

Trikiti eskolakoek Kartzelako zelde-tan ikasitakoa jende artean erakusteko aukera izaten dute urtean zehar: Erramu Zapatuan, Euskal Jaian, Santa Agendan e.a. ibili izan dira kalez-kale. B

## Maixa Lizarribar soinujoleak pandero klaseak emango ditu

**Azken urteotan Jardunen trikiti eskolan panderoa erakusten jardun duen Maider Osa arrasatearrak eskola la-ga du eta bere ordezkari Ainhoa Gezalaga eta Maixa Lizarribar (27 urte) arituko dira aurrerantzean. Honekin izan gara.**

- G.** Hainbat tokitan trikitixa erakusten zabilta...  
**E.** Bai, Bergarara astelehenetan etorriko naiz eta Arrasaten, Gasteizen eta Alton ere badihardut.  
**G.** Zuk zeuk, non ikasi zenuen?  
**E.** Billabonan, Martinen eskolan. 13 urte nituenean



hasi nintzen soinua ikasten eta 16 urterekin panderoa ikasteari ekin nion. Gozategi eta Etxakit-ekoekin batera ibili nintzen.

**G.** Beharrezkoak dira trikiti eskolak?

**E.** Bai. Gainera, azkenaldian, gainezka daude guztiak. Trikitixa beti izan da oso estimatua, baina azkenaldian lehen iristen ez zen tokietara heldu da, batez ere komunikabideen eraginez.

**G.** Laugarren diskoa noizko?

**E.** Datorren astean hasiko gara grabatzen eta azaro bukaerarako kalean izango da. Kitarra gehiago eta pop eta hip-hop soinuak ere izango ditu.

### ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



## PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK  
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK  
• ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Lehiaketa batean parte hartzen duen kide bakoitza.  
2. Amets egiten dutenak. 3. Eztiak. Bromoa. 4. Momentu.  
Idor. Mila. 5. Nitrogenoa. Indartua. 6. Lekua. Gozo. 7. Alu-  
minioa. Röntgen. Nafarroako urtegia. Sufrea. 8. Sastraka.  
Garen hauek. 9. Oinarritzko edaria. Topaketak. 10. Haur  
hizkeran, ume. Aurkitu.

**Goitik behera**

1. Laguntza. 2. Bizkaieraz, eman. Olagizon. 3. Bustiak. Santu.  
4. Isilik! Ezten. Bat. 5. Estatu Batuetako estatua. Kontsonan-  
te bustia. 6. Kolore militarra. Gabeziak. 7. Iridioa. Gesala.  
8. Diru-kopuru handia. Errepikatuz, txori mota. 9. Eako  
biztanle. Utik! Beti hedatzeko joera duen gorputz. 10. Nor,  
pluralean. Bikain, dotoreziaz.

**Soluzioa**

10. Ak. Maisuki.  
9. Eart. Uti Gas.  
7. Ir. Kresala. 8. Dirutza. Ku.  
5. Alaska. Ti. 6. Kaktia. Ezak.  
3. Hezeak. San. 4. Iso. Ziri. I.  
1. Laguntasuna. 2. Emon. Olan.  
Goitik behera  
9. Ura. Talak. 10. Nini. Kausi.  
7. Al. R. Eza. S. 8. Sasitza. Gu.  
5. N. Azkartua. 6. Tokia. Ezi.  
3. Gozoak. Br. 4. Une. Siku. M.  
1. Lehiaketa. 2. Amestiarak.  
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

**Geltoki honetatik Bergaratik gertuen dagoen zein herritara doaz autobusak? Eta urrutien?**

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

- Ze santuren omenez ospatzen dira Angiozarko jaiak?  
A- San Martin  
B- San Froilan  
C- San Migel
- Non irabazi du Aitor Zabaletak azken proba?  
A- Asturiasen  
B- Andaluzian  
C- Kanarrietan
- Hauetatik, nor ez da Jarduneko Trikiti Eskolako irakasle izango aurtien?  
A- Maixa Lizarribar  
B- Ixiar Oreja  
C- Iosu Zeziaga

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Tartufo** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Jose txu Molanorentzat** izan da: Gaspar jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Jose txuri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **San Martin**  
Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

San Juan auzoa,  
Elgetarako bidea, Bergara.  
Tf. 943 76 35 51

**Aierdi Gaineke Juan Jose Murgiondo (58 urte) aski ezaguna dugu, egunero baserriko ogia saltzen ibiltzen baita herrian. Erramu Zapatuko eta San Martinetako ferietan ere izaten da, azken honetan gazta lehiaketan parte hartzen duelarik.**

**Nork erakutsi zizun gazta egiten?**

Artzaiekin eta ikastaroetara joanez ikasi dut.

**Gazta on batek zer izan behar du?**

Tabernan jateko bakarrik ez, umeei ere gustatu behar zaie.

**Gazta jateko momenturik onena?**

Merienda ordua beharbada.

**Zerekin lagunduta?**

Ardo beltzarekin.

**Zuri, gazta guztiak atsegin zaizkizu?**

Ez naiz gaztazalea.

**Zenbat ordainduko zenuke**

**Ordiziako gazta irabazlearengatik?**

Asko ez. Gainera parte hartzen duten gazta guztiak berdin samarrak dira.

**Zenbat ardi dituzue baserrian?**

330.

**Eta artzai txakurrak?**

Bost. Eta beste bi mastin.

**Artzai txakur txapelketetan parte hartu duzu sekula?**

Ez, asko praktikatu behar horretarako...

**Baserriko lanik gogokoena?**

Ardiak jaistea igual...

**Eta gogorrena?**

Denak dira gogorak baina gustora egiten ditut.

**Semeek laguntzen dizute?**

Bai baina ez zaie gehiegi gustatzen baserriko lana...

**Zein ordutan oheratzen zara?**

Bederatzi eta erdietan.

# Juan Jose Murgiondo

**Eta esnatu?**

Bostetan.

**Zenbat opil egiten dituzue egunean?**

1.000 inguru batzuetan.

**Sukaldari ona zara?**

Hamarretakoa jarri bai baina hortik aurrera...

**Gustoko janari bat?**

Potajea, txuleta..., entsalada kenduta denetik jaten dut.

**Postre bat?**

Flana.

**Ogitarteko bat, zerena?**

Tortilarena.

**Urtaro bat?**

Uda, baserrian askeago eta lasaiago ibiltzen gara eta.

**Hobby bat?**

Ahari jokoa ikustea gustatzen zait.

**Olanok Vuelta irabaziko al du?**

Hala ematen du, bera baita liderra, baina egia esaten badizut kirol kontuak ez ditut jarraitzen.

**Mendizalea zara?**

Bai, baina gutxi joaten naiz mendira.

**Bukatzeko, esaiguzu astebukaerarako plan on bat.**


Arantzazutik bueltaren bat, nonbaiten afaldu... B



## POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78



## II. NAHIKARI DARDO TXAPELKETA

Irailaren 25ean. 22:00



- Joko-modalitatea partida bidezko zozketaz aukeratuko da.
- Finala "Cricket zoro"ra jokatu da.
- Materiala, Nahikari jarriko du.
- Izena ematea: 500 PTA.
- Sariak 4 lehenengoentzat.

**NAHIKARI taberna**

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

## ARREGUI, E.M.



ARROZLAN MEKANIKOAK  
SUKALDEKO ARMAIRUAK  
HORMA ARMAIRUAK  
ATEAK, eta abar  
TARIMAK-PARKETAK  
NEOPRENOZKO JUNTADUN  
EGURREZKO LEIHOAK  
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

## TABERNA ZAHARRA

*Jatetxea*

bazkari eta afariak

Telefona: 943 76 21 21  
ANGIOZAR



## Bergara txapeldun! (1961)

Bada iragana oraina baino hobea dela dioen esaldia eta, Bergarako futbol kontuetara aplikatuz, arrazoia eman beharko diogu hori esan zuenari. Garai batean Bergarako futbol talde nagusia oso indartsua zen eta, horren adierazgarri, Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen 1961 urtean. Goiko argazkia Legazpiko Illintxa taldearen aurka Beasainen jokaturako finalaren atarian aterata dago. Bergararrak erraz nagusitu ziren 3 eta 1eko emaitzarekin eta txapeldunen kopa ekarri zuten herrira. Jarraitzaile kopurua ere orain baino handiagoa zen eta herritar asko izan ziren Loinaz futbol

zelaian, taldeari animoak ematen. Andres Alzelai orduko entrenatzailearen arabera, talde hurak gaurko 2.B mailan aritzeko maila zuen. Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Sebitas, Mateo Salaberria, Sabas Igartua, Andres Alzelai, Juantxo Aranburu, Eugenio Arregi, Andres Mujika eta Luis Mari Egaña.

**Makurtuta:** Jose Mari Lizarzaburu, Juanito Arriaran, Jose Luis Arenaza, Fidel Berezibar eta Eduardo Agirre.

Argazkia: Bego Arizabaleta

### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

## ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Mina izan aurretik, zatoz guregana  
Minari aurea hartzea da gure apostua

- Bizkarra zaintzeko faja bereziak
- Oinetako erosoak

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34



## Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



# egizabal

Oinetakoak  
eta poltsak


Betikoak!  
Lau belaunaldiren  
bermea dugu.

Ferrerias, 9 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28

**MULTIOPTICAS**


**Bonardi '98 bilduma,  
monturak 3.150 pta.n**




Orain, **milaka sariren zozketan**  
parte hartu ahal izango duzu  
Bonardi bildumako edozein  
montura erosteagatik.



B500 Mod.



B300 Mod.



B600 Mod.



B800 Mod.



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari :  
• MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.  
• Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batera errekaratu barik.



LORTU EZAZU  
MULTIOPTICAS-en  
«TRAVEL CLUB»  
PROGRAMAKO  
PUNTUAK

**Nº 1 EN SERVICIOS OPTICOS**

**LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - BERGARA  
Tel. 943761575

J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
Tel. 943792995

J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA  
Tel. 943889988

R.P.S. Nº 421/96

# EZ DAGO KONPARAZIORIK



**OMU**  
KERAMIKAK



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka 6 • Tf./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Otalora 1, behea • Tf. 943 79 07 20 • ARRASATE

**ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK**